

AUKERATIK ARDURARA

Iñaki Errazkin Ingurumen
diputatua, Gipuzkoako hondakin
kudeaketaz eta Azpeitirako
gustatuko litzaiokenaz 20



**BADAKIZU ZERGATIK AZTERTZEN
DUDAN NIRE ENTZUMENA GAES-en?**
"Egunen batean dena errepika
diezadatela saihestu nahi dudalako"



www.gaes.es



2014ko neguko promozioa

Gozatu ezazu zure etxean Miele batek bakarrik eskaini dezakeenaz: exigentzia handienari erantzungo dioten emaitzak, fidagarritasun paregabea eta iraunkortasun bermatua.

Aurkitu perfekzioa **prezio erabat sinestezinean.**

Erabilera
anitzeko labea

629€

Garbigailua

799€

Bero-bomba
bidezko lehorgailua

999€

Ontzi-garbigailua

599€

Gipuzkoako Miele Banatzaile Ofiziala:

**MILAR
LARRAMENDI**

Julio Urkijo, 16
20720 Azkoitia-Gipuzkoa
Tel.: 943 851 897

Made in
Germany

Miele
IMMER BESSER

*2014/01/07tik 2014/03/31ra (biak barne) gomendatutako prezioa.
RAEE kostua barne. Zergak barne. Beste eskaintzekin bateraezineko prezioa.

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
 Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
 uztarrria@uztarrria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 160.a (2014ko apirila)
Urtea. XV.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio
 eta Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730792 /
 uztarrria@uztarrria.com
Bazkietza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilerro
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Mailo Oiarzabal
Webgunea.
www.uztarrria.com

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)



Gipuzkoako Foru Aldundia



Uztarriak Bai Euskarari Oharra. Uztarrria Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik



2014KO APIRILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



16

iritzia

Inkesta. Udaberriko ordu aldaketak eragiten al dizu **13**

mamia

Masterrak. Igeriketa ez da nerabezaroarekin amaitzen **04**

Klik! Maiatzaren 1ean inauguratuko dute Madalenako Ospitale eraberritua **16**

Azpeitiarren etorria. Keixeta, Kaskante, Antzi... gatza eta piperra **24**

jakiteko

Akordatzen? Parrokiako kanpaien egitekoa ez ezik, haien funtzionamendua ere asko aldatu da **34**



04



34

Ba al dakizu bikain dabilen Eibar futbol taldea sarritan etortzen dela Garmendipera entrenatzera? **Uztarrria**

egin zaitez bazkide Uztarrrian



943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1** eta **biografiak txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.060 bazkide **30** euro dira gara Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro dira **urtean.** 110.000 euroko aurrekontua 2014an.



Liburuxka biografikoak, oraingo. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpirtarte 'Kabra', Enrique Zurutuza, Maria Jesus Arregi

Badu jarraipena

Izarraitz Igeri Elkarteko masterrek aurreneko denboraldia dute aurtengoa. Dozena bat lagun elkartu dira, baina taldea handitu nahi dute. 📧📞 Julene Frantzesena

Igerilari zaharrak direla diote Izarraitz Igeri Elkarteko master taldeko kideek master izatea zer den galdetuta. 'Zaharra' izatea ez da master izateko baldintza inondik ere, baina 25 urte edukitzea beharrezkoa da. Amerikako Estatu Batuetan sortu zen modalitatea, 1980ko hamarkadan, eta harrezkero indarra hartzen eta hedatzen ari dira master taldeak.

Joan den urtean elkartu ziren adin muga hori gainditzen duten dozena bat lagun Izarraitz Igeri Elkartearen baitan, eta master taldea sortu zuten. Aurtengoa dute aurreneko denboraldia, eta taldekide kopurua handitzea eta taldea egonkortzea dituzte, besteak beste, helburu. Hala diote Rafa Zubeldia (Azpeitia, 1972), Leire Zeziaga (Oñati, 1974) eta Jon Oteiza (Azpeitia, 1982) Azpeitiko master taldeko igerilariek.

"Erdiak lehen igerian ibilitakoak gara, eta beste erdiak triatlloi taldetik etorri dira", azaldu dute. Jon Oteiza, esaterako, triatlloi taldeko kidea da, eta hiru kirolak uztartzeak denbora eskatzen duela dio: "Ondo moldatzen naiz entrenamenduekin eta, baina gogorra da. Denbora eskatzen du. Gainera, nire kasuan igeriketaz gain lasterka eta bizikletan ibili behar izaten dut, eta beste gauza batzuk aloratu behar izan ditut".

Zubeldia eta Zeziaga lehen igerian ibilitakoak dira: "Ume ginenetik ibili gara igerian, eta ordutik ezagutzen gara. Izarraitzekoek



Izarraitzeko master taldeko kideak, Azpeitiko igerilekuan.



||| “Neska zein mutil, jende piloa ibiltzen da igerilekuan, eta horiek taldekide bilakatzea nahi dugu”

RAFA ZUBELDIA
master igerilaria

egin ziguten taldea osatzeko proposamena eta baiezkoa eman genien. Triatloikoak ere maiz ibiltzen ziren igerilekuan, eta horrela elkartu ginen. “Gu ez gara inoiz igeri taldean ibili, eta hauek –Zubeldia eta Zeziagari erreferentzia eginez– asko erakutsi digute”, dio Oteizak.

Taldean aritzearen abantaila

Normalean, astean lautan entrenatzen dute masterrek, eta Oteizaren aburuz, “errazago” entrenatzen da taldean: “Bakarrik gogorra goa egiten da. Entrenatzeko gogorik ez duzuean taldekideak hor izateak bultzada ematen du”. Zubeldia ere iritzi bertsukoa da: “Taldekideok aste osorako entrenamenduak prestatuta izaten ditugu, eta horixe egiten kasa etorri gero, egiten dugu, baina gogoaren arabera gehiago edo gutxiago. Taldean jardutea desberdina da”. Leire Zeziagak ere taldean aritzearekin “gustura” dagoela dio, eta “alde handia” dela bakarka edo taldean jardutea.

Bestalde, master taldea sortzeak balio du “gazteek gerora taldean igerian aritzea bad” goela ikusteko”, dio Zeziagak. “Bada igerilari izan den eta orain master taldean aritzera ausartzen ez den jendea. Taldea egonkortzen denean, agian, animatuko dira”, dio Zubeldiak.

Helburuak eta asmoak

Aurrera begirako helburua “munduko txapelketan aritzea” dela dio Zubeldiak, barre artean. Baina, gaiari serio helduta, “taldea handi-

ztea” gustatuko litzaiokela dio: “Taldekideok helburu desberdinak ditugu; batzuk trabesia-etarako prestatu nahi dute, besteek igerilekuko txapelketetarako, eta beste batzuk entrenamenduak soilik egin nahi dituzte.

Zeziagak, berriz, taldean “neska faltan” dirrela dio: “Bi neska gaude, momentuan. Beste bizpahiru hor dabilta, zalantzan, oraintxe bai eta oraintxe ez. Trabesietan-eta aritzen den neska ugari dago inguruan, baina ez dira taldean aritzera animatzen. Trabesiak egiteko bada ere, taldean sartzera animatu nahiko nituzke”.

Zubeldiak dioenez, “neska zein mutil, jende piloa ibiltzen da igerilekuan, eta horiek taldekide bilakatzea nahi dugu. Polita litzateke hori, zeren badira guk adina edo gehiago entrenatzen duten herritarrek”.

Zeziagaren esanetan, jendeak pentsatzen du “guk maila handia dugula, eta hargatik ez dira atrebitzen taldera etortzen, baina hori ez da horrela. Norbere mailara egokitzen dira entrenamendu saioak. Faltza dena da betidanik igerian aritu den horietakoren bat apuntatzea, ondoren gehiago anima daitezten. Jendea lotsatu egiten da”. Oteizak ere horrela dela uste du: “Jendeari horrek ematen dio beldurra. Helburua izan behar du maila desberdinetako jendea egotea taldean. Ez dugu denok entrenamendu berdina egin beharrik. Batzuk gehiago egingo dute eta besteek gutxiago. Kontua da igeriketa ez dela derrigor taldean aritzea eskatzen duen kirola, eta jendea bere kabuz ibiltzen dela. Baina, kirola ba-



||| “Gazteek gerora igerian taldean aritzea badagoela ikusteko balio du master taldeak”

LEIRE ZEZIAGA
master igerilaria



||| “Igeriketa ez da derrigor taldean aritzea eskatzen duen kirola, eta jendea bere kasa ibiltzen da”

JON OTEIZA
master igerilaria

karrik egin beharrean, aldea da talde giroan egitea. Afari batzuk ere egiten ditugu... Kirola asko gustatzen zaigu, baina... kar, kar, kar”. Zubeldiaren ustez, igerirako “grina eta gogoa” badago Azepeitian, eta “jende hori animatzea nahi dugu, kabitzen dira eta. Igerilekua handia da”.

Txapelketak

Zubeldiak dio txapelketa gutxi dagoela masterrentzat: “Zarautzen egiten da bat, eta aurreten hirugarren goz izango da. Ordizian aurreten egingo dute aurreneko aldiz, eta Santurtzin ere aurreten egingo da lehenengo. Ikusten da Euskal Herrian orain ari dela masterren kontua indarra hartzen. Zarauzko masterrek bospasei urte daramatzate eta talde zaharrena hura izango da, ziurrenik. Baina, esandakoa, gero eta talde gehiago ari dira sortzen”.

Txapelketaren bat Azepeitian egitea buruan darabilte masterrek: “Datorren urterako ari gara tanteatzen, baina taldea berria da eta ikusi egin behar da zein itxura hartzen duen, jarraitzen dugun ala ez, zenbat jende berri hasten den...”.

Azepeitiar igerilari eta igeri zaleek badute indarra hartu duen zita propioa, Getaria-Zarautz itsas zeharkaldi ofizialak Santio edo saninazioekin kointziditzen zuelako sortutakoa. Proba horrek balio du, igoal, jendea erakartzeko.

Dena den, taldeko kideek badute gogoia eta kemena. Talde giro aparta ere bai. Eta esaterik diogen gisan, gustuko tokian, aldaparik ez! ✘

Nirea (intro)

Egungo estatu ereduan, askatasuna, berdintasuna, justizia, segurtasuna eta jabetza eskubidea dira balore nagusi. Jabetza sakrosantua; XVIII. mendeko burgesiak (ere) lehenetsia, eta era berean injustizia gehienentzat iturria eta orohar, gizateriaren aberastasunaren %80a %20aren eskuetan egotea justifikatzen duen printzipioa. Batena denak, besteari ezin baitu izan.

Jabetza pribatua ez da burgesia modernoaren asmakizuna. Gizakia lurra ustiatzen eta soberakinak sortzen hasi, eta hauek saltzeko merkataritza egituratu zuenetik hasi eta gaur arte, jabetza pribatua izan da, giza komunitate ezberdinen (ez guztien) bizimodua zuzendu duena. Marxentzat, eraldaketarako ezinbestean deuseztu beharreko instituzioa.

Historia pixka bat. Erromatarrek, erromatar-hiritartasuna zutenak, penintsula italikoko lurjabeak ziren; hiritar ez zirenak, ez. Nahiz eta guztiak leku berdinean (penintsulan) bizi, horrek jatorrizko ezberdintasun bat suposatzen zuen jendarte antolaketan; jabeek, erromatarrek, eskubideak zituzten, gainontzekoek ez. Guztiak ez ziren berdinak, jaiotzez. Esklabotza erlazioek, hemen, justifikazio osoa zuten, lur italikoa bizi nahi zuten ez-hiritarrak, lan egin behar baitzuten hiriritartasuna lortu artean, jabeek, estatus horregatik, komunitatearen antolaketari, filosofiari, ekonomiari edota kulturari buruz eztabaidatzen zuten bitartean. Demokrazia omen.

Ondoren, agian, zu ere bai

Araututako zituzten jabetzak jabeari eskaintzen zizkion eskubide eta aukerak: salerosketak, alokairuak, maileguak, gordailuak... Hain antolaketak 'ona'-k, Erromako inperioaren erortetik 1.500 urte pasatu diren arren, bizirik dirau. Eskema bikaina burgesia modernoarentzat, non botere ekonomiko-politikoak eskuratzetik abiatuz, XVIII. ean garai batean elizaren eta jauntxoaren ziren lurak lortu zituzten, euren beharren arabera sistema erai-



||||||| **hodei mendinueta** |||||


||| **Zikloa: lurraz eta bere baliabideez jabetu, eta jabe ez direnak lanera, euren burua saltzera behartuak**

kiz, jabeek eta boteredunek askatasun, berdintasun eta segurtasunez bizitzeko aukera izanez, eta gizaki guztiak hori lor zezaketela salduz. *Liberte, egalite, fraternite?* Lehenengo ni, nirea; ondoren, agian, zu ere bai, errentagarria bazaitut.

Europar eta Ipar Amerikan garatu den demokrazia formala edukietan ez garatzea eragin du jabetza pribatuak. Idatzita daude eskubideak, onartuak, baina interferentziak daude gauzatzeko orduan. Ez dago justiziarik, ez bakerik, ez garapen jasangarririk. Trukean esklabotza, esplotazioa, biolentzia, istorio zikliko makabro gisa. Zergatik?

XXI. mendeko sozialismoa liburuan erantzun posible eta logikoa: azken 6.000 urtean, eskema berdinak errepikatzen direlako; lurrak ematen dizkigu bizitzeko baliabideak; lurrak eta baliabide hauek lortzeko, komunitate ezberdinen arteko gudak, konkistak, sakeoak, etengabeak dira. Lurra, merkantzia da, eskuratu edo saldu daiteke. Zikloa: lurraz eta bere baliabideez jabetu, eta jabe ez

direnak lanera, euren burua saltzera behartuak. Bitartean, parlamentuetan, multinazional zein banketxeetan, jabetza horri errentagarritasuna nola atera eztabaidatzen da, esku lanik egin gabe, arteen, operaz, Dom Perignon, kokainaz eta Txai-kokainaz gozatuz.*





LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABERO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria.
Lleidako Unibertsitatea eta Madril.
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua.
Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.
Implantologia Masterreko Irakaslea.
Lleidako Unibertsitatea.
Kirurgia Masterreko Irakaslea.
Salamanca Unibertsitatea.
Unibertsitate Institutioetako Irakasle gonbidatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomata.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikan Diplomata.
Autran Institutua, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURUAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓNSTONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADL...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Koloredun mundua

Nire munduen ibilbidea Albert Espinosa eta berak idatzitako *El mundo amarillo* liburuari buruz izan zen. Ibilbidea, *Brujulas que buscan sonrisas perdidas* liburuan idatzi zuenarekin amaitu nahi dut: "Inoiz ez diogu elkarri gezurrik esango... entzun arretaz! Gezurrez inguratuta gauden gizarte honetan, inguruan beti egia esango diguten pertsonak ditugula jakiteak asko balio du. Zu, nire egiazko munduaren zati izatea nahi dut... Zugan konfiantza osoa izan dezakedala, ez didazula inoiz gezurrik esango, eskatutako bakoitzean egia esango didazula jakiteak, izugarritzko ziurtasuna ematen dit, sendotu egiten nau! Egia munduak mugitzen ditu, kolore guztietako munduak. Egia zoriontsu sentiarazten nau!".

Hau dela eta, nik ez dut nahi kolorerik gabeko mundurik, nik ez dut nahi kolore bakarreko mundurik, kolorez osatutakoa baizik, 'koloredun' mundua nahi dut! Mundu hau osatzen duten pertsonak koloredun pertsonak dira eta oparitzen dituzten esaldiak ere, mila koloretakoak dira.

Pertsona denok desberdinak gara, egun batean mundu horikoak; hurrengoan, aldiz, morekoak; batzutan, aldi berean bi mundukoak, urdinekoak eta berdekoak. Hala ere, norberaren koloredun munduan, norberak aukeratzen du ze kolorek duen indarra, zein kolorek irabazten duen. Norberak pentsatu behar du gehien ikusten den kolore horrek besteengan duen eraginaz eta, ez bada egokia, inoiz ez da aldatzeko berandu izaten.

Grisetik koloreetara

Nire bigarren artikuluan pertsona gris bati buruz idatzi nuen, hirukien ama izanda nola litekeen zapatu gau batean kalean ibili esaten zidanari buruz. Gogoratzen? Hainbeste aldiz oparitu zidan esaldi hark nigan izan zuen eraginaz ohartu eta damua adierazi zidan! Ez zitzaien pertsona grisa izatea gustatu eta 'koloredun' mundura aldatzeko gaitasuna izan



|||||||nagore illarramendi|||

|||Inguruan nahi ditudan pertsonak koloredun mundukoak dira, kolorez betetako pertsonak

zuen! Aupa hi! Ongi etorri koloredun mundura!

Mundu beltzekoari, aldiz, umea hil zitzaidalako Jesusengandik aldendu nintzela esan zidan hari, hobeto joango litzaioke grisaren bidea jarraitu eta bera ere 'koloredun' mundura aldatuko balitz. Baina batzuk ez dira ohartzen beraien munduak kolorerik ez duenik edo behintzat gehien ikusten den kolorea beltza denik. Hor doaz besteen koloredun munduak zapuzten, hor doaz kolorerik gabeko esaldiak oparitzen!

Nik inguruan nahi ditudan pertsonak koloredun mundukoak dira, kolorez betetako pertsonak, horiak, zuriak, berdeak, urdinak, arrosak... Koloredun esaldiak oparitzen dituztenak, balorez beteriko pertsonak, egizaleak, besteen lekuan jartzen direnak, besteen mina arintzen dutenak, garbiak, hainbeste maite ditudan irribarreak eta besarkadak oparitzen dituztenak...

Pirritx, Porrotx eta Mari-mototsen abestiak dion bezala: *Nork agindu ote du kolore bakarra, egunero irten ahal bada ostadarra.*
Eskerrik asko.★



Etorkizunerako zure giltza.



Poliki Poliki English Classes

URRESTILLA

Tel: 685209875

phlaaps@yahoo.com

www.tonybyrne.webs.com



www.movilquick.net

42 denda
2001 etik zerbitzu teknikoaren
bermea eskeintzen

**DEN-DENA
KONPONTZEKO
ZERBITZU
TEKNIKOAK**

Orain zure mugikor, tablet eta kontsolak
konpontzeko zerbitzu teknikoa duzu.

Ez ezazu galdutzat eman, eska iezaguzu
aurrekontua **konpromezurik gabe**

C/ José de Artetxe, 8 bj (Azpeitia)

Tel: 943 812 231

azpeitia@movilquick.net

 **movilquick**
zure zerbitzu teknikoa

||| HIZKUNTZ ESKUBIDEAK |||||

Azpeitia arnasmune


Jakitun al gara euskararen geroan jokatzeko dugun rolaz? Arduraz jokatzeko al dugu azpeitiarrok hizkuntzarekin? Egungo hizkuntza politikak nahikoa hauspotzen al ditu arnasmunak? 📌 Uztarrria

Azken datuen arabera (2011), Azpeitiko biztanleen %83,64a euskalduna da. Eta Azpeitiko Udalak 2009an egindako kale neurketaren arabera, euskararen erabilera %86,1ekoa da, Azpeitian. Nagusiki euskaraz bizi gara azpeitiarrok. Baina jakitun ote gara euskararen geroan jokatzeko dugun paperaz? Arduraz jokatzeko ote dugu hizkuntzarekin? Zer egin dezakegu Azpeitian ere erdarak bereganatu dituen eremuak euskalduntzeko? Galdera horiek eta gehiago erantzuten saiatu dira, orain gutxi, UEMAk antolatutako arnasmuneeen tailerrean.

Edozein hizkuntzak, biziko bada, nagusi izango den eremuak behar ditu. Hori da soziolinguistikako adituek diotena, baita euskalgintzako eragileek azpimarratu, eta Eusko Jaurlaritzak berak ere aitortzen duena. Euskara hizkuntza minorizatua izaki,

euskal herritarren %30ak daki euskaraz; biziraupena ziurtatu gabe daukan hizkuntza da. Erdaren erreinuan bizi da euskara. Baditu, ordea, nagusi den eremuak ere. Horiei, euskararen arnasmunak deitzen zaie. Eta horixe da hain zuzen Azpeitia, euskararen arnasmune bat.

Udaleri euskaldunak, bertako biztanleen %70 baino gehiagok euskaraz dakiten herriak, Lapurdin izan ezik beste herrialde guztietan daude. Euskararen arnasmunerik zabalena osatzen dute udalerei euskaldunek, eta funtsezkoak dira euskararen biziraupenerako. Munduaren birrikak Amazonian daudela esaten den antzera, euskararen udalerei euskaldunetan daudela esan daiteke. Baina, egungo hizkuntza politikak, nahikoa hauspotzen ote ditu arnasmunak euskara normalizatzeko?*



||| Jose Mari Orbegozo.

||| ESANA DAGO |||||

||| “Dantzari oso onak daude Azpeitian.”

||| “Nire ikasleak txapelketetan ikustea da niren ametsa”

JOSE MARI ORBEGOZO
dantzaria

||| “Ez dugu bereizten jatorria, guretzat denak pertsonak dira.”

||| “Krisia eta gero, kalean hainbat zurrumurru dabil, esanez laguntza dena etorkinei ematen zaiela”

LEIRE ETXANIZ
Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia


Aiortza Autoak
CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
 aiortzaautoak@telefonica.net
MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK


IRENE ALTUNA
 LORADENDA
 Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
 www.ialtunadenda.com


Primavera pizzeria
 943 083 460
 www.laprimaverapizzeria.com

Saturno

Maitemintzeak aldi baterako txolintasuna dakarren moduan, guraso izateak bigarren haurtzaroz gozatzeko aukera bikoitza ematen dizu. Zeure txikiak ikusiz, mobiola atzera bota, eta zeure haurtzarako irudiak datozkizu zuri-beltzeko burutelebistara. Bigarren aukera, Doraemonen denbora-makinan atzera eginez, mukizu ginen garaian gozagarri genuenaz berriro ere gozatzu. Esate baterako, Joxelitoren magia berreskuratu Barela, Beristain eta Lasari esker.

Gaur egungo hurrek jolasteko oso denbora gutxi badute ere, duten apur horretan,

zaharrak berri edo beti-betikoak berrituta. Moda-modako joastailua (agian zuk hau irakurtzerako beste zerbait egongo da modan) xibota da. Zuk eta nik erabiltzen genuen hura bera ez, baina hura berrituta bai. Orduan xibota zen, orain ere bai, baina orain interplanetarioa da, Neptuno, Venus, Jupiter... Bada-kizue, marketina, berri itxura emateko, mamia gorde, azala aldatu eta salneurria puztu. 100 eurokoak ere ba omen daude. Haurrentzat 20 euroko xibotak merkaturatzea kezkatzen iruditzen baldin bazait, horrelakoak erosten dituzten gurasoak delitutik gertu daude



txetxu urbieta

(arrazoi duzu, ni ez naiz inor zuk zer egin behar duzun esateko, ni neu naiz aurreneko bekataria).

Xibotaren sukarrak, poliki bada ere, aurre-ra goazela erakutsi dit. Nire buru handi hau oker ez badabil, gure haurtzaroz xibota multilen kontua zen. Orain, neska eta mutil, denek dute euren planeta sorta. Xibota, beraz, generorik gabeko jostailu bihurtu da.

Ume jaio eta umetuta hil, hori omen da bizitzaren legea. Nire lagun Xakuk esango lukeen bezala, umeekin ume eta helduekin heldu.

Umetutako helduarekin, argi.*

IKUSTEKOA!



▲ ZEZENAREN AURREAN ITZULIPURDIKA.

Azpeitiko sokamuturreko irudiak mundu guztira zabalduko ziren honezkero, futbolari ospetsu bat zezenaren aurrean ibili ei zelako. Bestelako argazkirik utzi du, ordea, Karnabaletako sokamuturrak. Herritar bat zezenaren aurrean hankaz gora gelditu zen unean argazki makina ugari zegoen plazan, eta horren lekuko da irudi hau. 📞 **Julene Frantzesena** 📧 **Juan Joxe Agirre***

MARTXOKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Benetan aho bizarrik gabe

JESUS EGIGUREN. Zoragarria Egiguren eta Enekoitz Esnaolaren arteko solasaldia. Denetarik aipatu zuen PSE-EEkoak, politikoki zuzena ez dena ere bai. Deigarria, zenbait arlotan duen nazio ikuspegia. Sanagustinen ikusteko aukerarik ez nuen izan, baina antolatzaileek lan ederra egiten dute formatu desberdinetatik jaso ahal izateko. Segi horrela, kalitatezko euskal solaskideak Azpeitira gonbidatzen.



alex silva



Ikusleak magiaren parte

EZ KONTENPLATIBOAK. Hator magiara ekitaldia iragarri zutenean, gogora etorri zitzaidan, aspaldi, herriko hainbat eragileren artean izan genuen eztabaida, ekitaldi ez kontenplatiboetara pausoa emateaz. Horrelakoak dira bidea, agian, beharrezkoak denak direla ahaztu gabe.



Hezkuntza, herria hezitzeko tresna

LOMCE-RI EZ! Ikasleak berriro ateratu dira kalera protesta egitera, baita Azpeitian ere, Espainiako Gobernuak ezarri nahi duen LOMCE legearen kontra. Wert ministroak argi laga zituen bere helburuak eskolekiko: "Españolizar los estudiantes". Hori bilatzen du LOMCEk, ez dut

uste inondik inora pluraltasunik eta aniztasunik duten aberastasuna kontuan hartzen duenik. Are gutxiago hizkuntzei dagokienez. Adostasunean eta herriaren ikuspegia barneratzen duen hezkuntza sistema da beharrezkoa, ez desadostasunetik eta inposizioz ezartzen dena.✳

INKESTA

udaberriko ordu
aldaketak
eraqiten al dizu?

J. Frantzesena/M. Juaristi

SONIA TEJERA

29 urte



"Ordua aldatzeak
arratsalde partea
luzatzea
dakarrenez,

dezente gehiago aprobetxatzen
dut eguna. Eguraldi ona
egiten badu, umorean ere
eragiten dit".

EUSEBIO BELOKI

43 urte



"Ez dit eragiten ez
eguna luzatzeak,
eta ez eguna
mozteak. Nire

laneko ordutegia nahiko
aldebasa da, eta ez dit axola
ordua aldatzeak. Ez dit ezertan
eragiten".

NAROA SORAZU

21 urte



"Umorean
eragiten dit
gehien, eguna
luzatu edo ez,

gauza berdinak egin behar
izaten ditut eta. Baina, gauza
horiek egiterakoan dudan
animoa aldatzen zait.
Are gehiago eguraldia ona
bada".

MANUEL ETXANIZ

74 urte



"Nahiago dut
ordua aldatuta,
goiztiarra naiz-
eta. Gainera,

kalean lagunekin berriketan
egoteko nahiz pasieran
ibiltzeko askoz hobe
beranduago ilunduta".*

Ez da normala!

Pentsatu al duzu inoiz esnatzen zarenetik oheratzen zarenera arte zenbat aldiz erabiltzen duzun *normal* hitza? Badirudi normala izatea eta normal jokatzea guztiz beharrezkotzat ditugula, originaltasuna nolabait miresten badugu ere, ezberdintasuna guztiz gaitzesten duen jendardean gaudelarik. Baina zer esan nahi du normala izateak, eta zergatik da hain normala normala izan nahi izatea?

Denok mintzo gara normala denaz eta ez denaz, baina zeren arabera den ez dago hain argi. Este-reotipoei maskara kendu nahian dihardugu azken urteetan, horretarako besteak beste estatistikak baliatuz. Irrealak diren estereotipoak deseraiki behar ditugu, baina galdetu behar genuke horretarako bidea normalitatea edo aniztasunaren aberastasuna goraiapatzea den. Estatistikek horretarako bide bakoitza finean, normala zer den eta zer ez den esateko. Zu normalitatearen baitan edo kanpo zauden jakiteko.



amaia agirretxe

Eta bai, normala denaren atzean ere norma dago, araua, normaltasuna hegemonikoa izatera iristeraino. Norma betetzen duena ona da; norma betetzen ez duena, aldiz, baztertua izango da. Ez dago normalitate bakar bat, inguruaren eta taldeen arabera. Maiz, integratuak sentitzeko eta taldearen partaide izateko behar dugu normalak garelako sinestea, geure izatea beste begietatik epaitu ohi baitugu. Baina, aldi berean, normalitate berdinak kondentatzen gaitu sarritan.

Zorionez, denok ezberdinak gara, den-denak gara beharrezkoak baina inor ez da ezinbestekoa, inork ez du eta normaltasuna guztiz betetzen. Ez dezagun ahaztu gurean ohikoa dena, bitxikeria dela albokoarentzat, eta guztiz kondenagarria kanpokoarentzat.

Geure nahiz besteen berezitasunak arazotzat hartu ordez aberastasun gisa ulertu eta sentituko bagenu, bestelakoa litzateke bizitza.*

**Galduen hasita, azpeitiarrok Lortuko
al dugu 800 herritarrek ekainaren 8ko
giza-katean parte hartzea?** Uztarria

Denontzako justizia

Gizakiok baikorrak gara. Horrexegatik uste dugu epaitegira ez garelako inoiz joango. Gero bizitza osorako amodioa amaitzen da eta seme-alabekiko eskubideak babestera joan behar dugu, edo lan bat egin ondoren eskerrak ematen dizkigute baina dirurik ez eta, noski, jan nahi dugunez, epaitegira joan behar dugu gurea eskatzera.

Justiziak, izen hori merezi izateko, herritarrak zaindu behar ditu. Horretarako dago: aprobetxategien aurka xumeak laguntzeko. Daukagun sistema judicialak ez du beti betetzen behar hori, batzuetan justu kontrakoa, xumeak zapaltzen ditu eta. Ez da berria boteretsuenek abokatu hobeak edo garestiagoak kontratatzea, baina orain, tasen legearen bidez, arazo ekonomikoak daukaten pertsonak babesgabe gelditzen dira, tasarik pagatu gabe ezin direlako epaitegira hurbildu.

Noizbehinka, kolektibo pribilegiatu batzuentzako babesa nabaria da. Jabetza erregistratzaileak eta



miren alcedo

notarioak etxegintzarekin batera krisian sartu ziren eta, kobratzeko beste iturri bat bilatu nahian, Espainiako gobernuaren konplizitatearekin ezkontzak eta desezkontzak diruaren truke notarioek egingo dituzte, eta erregistro zibila jabetza erregistratzaileek eramango omen dute. Horrela, Gipuzkoan 95 lanpostu kolokan daude; Bake-epaitegiak desagertze ar daude; eta desagertzen badira, edozein tramite egiteko bezeroak etxetik urrutira joan behar dira; jaiotze edo bizitza agiria ordainduko dugu, eta orain publikoa den arlo bat pribatizatu ere egingo dute.

Zer egin dezakegu? Eusko Jaurlaritzari exijitu, orain bere langileek ematen duten zerbitzua mantentzeko; eskumen hori kudeatu eta transferentzia osoa lor dezala Madrilekin negoziatzeko. Hemen, Azpeitian, apirilaren 10ean eta maiatzaren 8an hori eskatzera elkartuko gara. 10:00etan epaitegiaren atarian aurkituko gaituzue, guztiok gonbidatuta zaudete subiranotasuna erreklamatzera.*

BAIETZ, KE SI, PERO KE YO ME
LIMITO A PONER MULTAS. LO
DEL BIDEGORRI PARA PATOS
SE LO PLANTEAS AL ALKALDE.



Garena

Izan zitekeen beste era batera, baina tokatu zaigun izena tokatu zaigu. Arrotza da jende askoren belarrirako, eta nekatu egiten da bat zeure izena mila aldiz errepikatzen, hizki hizki esaten, izenaren inguruan azalpenak ematen.

Neke hori saihesteko, askotan ez garena garela esan izan dugu, eta ez atzerrian bakarrik. Baita Euskal Herrian ere. Ikasle garaian, Gasteizen, etxearren errenta ordaintzera Vital Kutxaren bulegora joaten nintzenez, ez nuen ordaintzaile moduan neure izena jaritzen, pisukide batena baizik. Izan ere, trami-

tea luzatu egiten zen geure izena erabiliz gero, eta pisukide baten izena esaten nuen, tramitea lehenbailehen bukatzeko, eta bulegotik haserretu gabe irteteko. Pentsa, izena hizki hizki esanda ere gaizki apuntatu izan zidaten.

Gauza bera gertatzen zaigu atzerrian "nongoa zara?" galdera egiten digutenean. Gehienetan, baina ez beti, garena esaten dugu, baina neketsua izaten da. Izan ere, askotan azalpen gehiegi eman behar izaten dira euskalduna zarela esaten duzunean. Batzuek badakite non dagoen, beste batzuek

ñaut frantzesena

zerbait entzun dute, baina ez dute kokatzen. Badira inoiz izena entzun ez dutenak ere. Eta azalpenak eman behar izaten dira: geure hizkuntza, kultura, ohiturak ditugula; ez dela inguruko hizkuntzen familiakoa, oso diferentea baizik.

Eta garrantzitsuen ez dena, baina garrantzitsuztat hartzen duguna: kokapena. Orduan, Espainia eta Frantzia aitatu behar izaten dira, erreferentziatuztat hartzeko, esplikatzeko, ulertarazteko.

Besterentzat, gehiegitxorentzat, Espainia eta Frantzia direlako gara.*



'Ocho apellidos vascos'

Rafak (Dani Rovira), Andaluziako 'señorito' bat, ez du inoiz bere Sevilla maitetik irten beharrik izan bizitza honetan behar duen guztia lortzeko: fino-a, emakumeak eta gomina. Amaia (Clara Lago) ezagutzearan, ordea, dena aldatzen da. Bere xarmetara errenditu ez den lehenengo neska, hain zuzen. Eta euskalduna. Bat bateko amodioak itsututa bere atzetik joatea erabakitzen du, "a las vascongadas", bere lagunentz hitzetan. Bertan euskalduntzat pasarazten du bere burua Amaiaren atentzioa deitzeko, horrela maiteminduko duen esperoan.

Denbora aurrera doan bezala gero eta zailagoa izango da Rafarentzat bere benetako identitatea sekretuan mantentzea, batez ere Amaiaren aita (Karra Elejalde)

KRITIKA 'Ocho apellidos vascos' filma



Zuzendaria. Emilio Martínez Lazaro.

Aktoreak. Clara Lago, Dani Rovira, Carmen Machi, Karra Elejalde.

Urtea. 2014.

ezagutzen duenetik aurrera. Neskaren aitak Rafa benetako euskalduna dela ziurtatu nahi du, besteak beste, bere zortzi abizen euskaldunengatik galdetuz.

Film espainiar batek azken urteetan izan duen estreinurik arrakastatsuen izan da *Ocho apellidos vascos*-ena. Gure inguruko zinemetan ere hainbat eta hainbat izan dira sarrera guztiak agortu dituzten erakustaldiak.

Edozeinek esango luke protagonistetako batentzat lehen pelikula dela... baina hala da. Dani Rovira komediante malagarraren zinemarako lehen lana izan da hau. Telebista saioetan eta monologoetan hainbat aldiz lortu duen bezala, film honetan ere barre algarra ugari eragingo ditu adin eta jatorri desberdineko ikusleengan.

ane soraluze

Izan ere, euskaldunoi eta andaluziarrei buruzko estereotipo ugari ukitzen dituen filma da hau, nola ez, umorea erabiliz horien kontura barre egiteko. Haien 'txispa' edo gure 'txispa' falta, edota beraien gomina eta gure orrazkerak, besteak beste.

Euskaldunoi buruzko txiste horiekin ez dira kasualitate; izan ere, gidoia bi gipuzkoarren lana izan da, Borja Kobeagarena eta Diego San Joserena, hain zuzen. Aktore lanetan ere hainbat eta hainbat aurpegi ezagun ikusiko ditugu. Eta zer esanik ez paisaiei buruz, Getaria eta Leitza artean besteak beste, izan baitzen grabaketa.

Barre algarra ugari sortu eta sortuko dituen pelikula da *Ocho apellidos vascos*, Euskal Herriko Sevillarraino.*



domusa

ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

AIZPURU AUTOAK
Landeta auzoa - Telf: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 20730 Azpeitia
aizpuru@aizpuru.net



▲ **UTZITA**
XVI. mendean
Madalenan os
baino lehen, a
zenbakidun e
garai bateko o
eraikinak. Asp
hutsik zeuden
oso egoera ka

Ospitale berria

Madalenako eraikina guztiz eraberritu eta maiatzaren 1ean inauguratuko dute jesuitek bertan prestatu duten interpretazio zentroa. 📌 Mailo Oiarzabal 📍 Jose Manuel Añon



A.
n eraiki zuten
ospitalea. Eraberritza
uzoko 14, 15 eta 16
txeek hartzen zuten
ospitalearenak ziren
aldiko urteetan
n etxebizitzak, eta
askarrean eraikinak.



▲ ZATI BAT, ERAITSIA.

Orain dela urtebete pasatxo hasi zituzten Madalenako ospitalea eraberritzeko lanak. Lehen eginkizuna, 16. zenbakidun eraikina eraitea izan zuten. Obraren zuzendaritzaz arduratu den Jose Manuel Añon jesuitaren esanetan, "beranduago erantsitakoa eta interesik gabekoa" zen. Haren tokian plazatxo bat prestatu dute eta hortik sartuko dira bisitariak ospitalera.

► SAN INAZIO.

1535ean hiru hilabetez egon zen Loiolako Inazio ospitalean, zauriak sendatzen, eta egonaldi hark bihurtu zuen gerora interes bereziko gune Madalenakoa. 1935ean, santuaren egonaldiaren laugarren mendeurrena ospatzeko ekitaldien barruan, jarri zuten Inazioren argazkiko irudia Madalenako basilizan.





▲ INAZIOREN LEIHOA?

Tradizioak dioenez, San Inazio bigarren solairuan bizi izan zen, errepide zaharren aldera ematen duen leiho gotiko honen inguruan. Eraberritzearen ikurtzat dute leihoa.

▶ GARBITOKIAK.

Ospitalearen obretako aurkikuntza bitxietako bat izan dira. "Ibai aldekoa atontzen hasi ginenean, lehengo txabola zahar baten azpian lurperatuta hor azaldu zitzaizkigun bi garbitoki, epokakoak seguruenek, eta etxetik errekarako bidean", kontatu dio Añonek Uztarriari. Horiek ere berreskuratuko dituzte.



▲ 'OKUPAK'.

Eraikin zaharretan 'okupak' bizi izan dira. Haietakoek utzitakoa izan daiteke goiko egur xafra. Graffitiak ere bai.





◀▲ **ARTISAU LANA.**

Eraberritze lanak joan den urte bukaerarako amaitzea espero zuten, baina luzatu egin zaizkie azkenean. "Ezustekorik ez" dutela izan dio Añonek, baina eraberritzea "artisaу lana" izan da, eta horrek denbora eskatzen zuen. Jatorrizko basearen gaian, Nafarroako haritzarekin osatu dute egurrezko egitura osoa, "garai hartako tradizioa imitatuz.

▲ **AZKEN UKITUAK.**

Erreportaje hau osatzerakoan oraindik lanean ari ziren Madalenako Ospitale berrituan. Maiatzaren 1ean inauguratuko du bertan interpretazio zentroa Jesusen Lagundiak. San Inazioaren Azpeitiko ibilbidea osatzeaz gain, Madalena auzoaren biziberritzean eragitea ere espero dute.✳



IÑAKI ERRAZKIN

Gipuzkoako Ingurumen diputatua

“ALdaketak, benetakoa b edukitzen du osagai poLem

Argi dauka birziklatzea
“betebehar zibikoa” izan
behar dela eta zabortegiak
ixtea, berriz, lehentasuna.

 Mailo Oiarzabal

Hondakinen kudeaketa sekulako jokoa ematen ari da Gipuzkoan. Iñaki Errazkin Ahaldun Nagusiaren kabinete buru bezala iritsi zen Foru Aldundira, baina Juan Carlos Alduntzin zentsura mozio bidez kargugabetu zutenean, Ingurumen diputatu izendatu zuten 2012ko udan. Harrezkero, ez dauka aspertzeko betarik.

Oraingo kontua ez izan arren, Bildu Diputaziora iritsi den agintaldi honetan aparteko zentralitatea hartu duen eztabaida da

hondakinen kudeaketarena. Nola bizi du hori Ingurumen diputatuak?

Presio mediatiko handiarekin. Gaia bera aspalditik dator. Berez da arazo potolo bat, irtenbide errazik ez duena, eztabaida asko sortzen duena, eta Gipuzkoan oso modu bizian bizi izan dena. Agintaldi honetan horri gehitu zaio Bildu udal garrantzitsuak eta Aldundia lehen aldiz gobernatzen ari dela, eta lupa handi bat jarri zaio, bai mediatikoki, bai hainbat indar politikoren aldetik, eta herrietan ere bai; hori hala da. Hon-



Badia, beti miko bat”



dakinen gaian egin nahi dugunaren inguruan, ez dadila gaizki ulertu, baina populismoa egitea edo polemika sortzea oso erraza da. Aldaketak planteatzen ditugu eta horiek ez dira errazak izaten. Oposizioa egin nahi duenarentzat, beraz, neurri batean erraza bihurtu da gai honekin polemika sortzea; egunerokotasunean aldaketak sortu eta herritar guztiei eragiten dien zerbaitetaz ari gara, azken finean. Bildu Aldundian egoteak gaia politizatzea ekarri duela esango nuke, eta aktualitatearen lehen mailara eraman du. Faktore guzti horiek gehitu dira eta horrek pisu handia izan du.

Balitzko interes politiko eta mediatikoak ahaztu gabe, zuek defendatzen duzuen erudia orain arte erakunde-etan agintzen egon direnen ereduaren kontrakoa da, edo desberdina, behintzat.

Teorian, aldekoa izan behar luke. Gauza kuriosoak gertatzen da hemen: plangintzak egin eta betetzeko esaten zaigunean, helburu batzuk jartzen dira; helburu horietara iristeko aldaketak egin behar dira; eta guk planteatzen ditugun aldaketak helburu horietara iristeko dira. Alegia, inork ez du esaten birziklapen maila altuak lortzea ez denik helburu bat, edo lehentasuna ez duenik izan behar. Gertatzen dena da hori lortzeko oso pauso ausartak eman behar direla, eta aurkari politikoei horrek aukera ematen die beldurrrak eta zalantzak sortzeko. Ze, helburuetara jota, zein da planteatzen dugunaren inguruko arazoa? Nik galdera hori egingo nuke.

Sortu diren kezka edo beldur horien aurrean autokritikarik egin al duzue? Lan didaktikoan behar beste sakondu duzuela uste al duzue?

Guretzat ez da erraza izan hau azaltzea, mediatikoki oso-oso presente izan delako planteatu nahi izan dugunaren aurkako jarrerera. Egia da, neurri batean auto-kritika egiten hasita, ez garela gai

|||DATUAK|||||

|||Jaio. Eefefefee eefef.

|||Herria. Azpeitia. |||Bizitokia. Azpeitia. |||Lanbidea. Azpeitiko alkate ohia, Gipuzkoako Ingurumen diputatua da 2012tik.

“Lapatx egin behar ez Litzatekeenaren irudia da”

“Ez gara gai izan gaia behar den parametroetan kokatzeko”

izan, hain zuzen, gaia behar den parametroetan kokatzeko. Edo, behintzat, kalean egon den eztabaida horretan hori ez da presente egon, beste parametro batzuetan neurtu da; hau Bilduren egoskorkeria izan balitz bezala, buruan sartu zaigun zerbait. Eta lehenik eta behin esan behar dena da, gu planteatzen ari garena ez duela Bilduk asmatu. Europan hondakinen inguruan aurreratuenak eta erreferente diren lurraldeetan egiten ari direna kopiatzen ari gara neurri batean, geure erara eta hemengo baldintzetara ekarrita. Zentzu horretan, uste dut ez dugula asmatu hori modu didaktiko batean azaltzen. Eztabaida gehiago lotu zaio politikari eta badi-rudi horrela neurtzen dela: Bilduren aldekoak direnek defendatu egin behar dute, eta kontrakoak direnek kontra egin behar diote.

Politizazioak zenbaterainoko eragina du?

Ez dugu ahaztu behar aldaketak beti edukitzen duela osagai polemiko bat, benetako aldaketa baldin bada, eta horrek kostu bat dauka; inozoa litzateke gure alde-tik bestela pentsatzea. Baina erantzun positiboak ere baditu. Gipuzkoan ikusten ari gara hain-

▶bat eta hainbat lekutan birziklapen mailak nola ari diren igotzen, kontzientziario maila ere orain dela urte batzuen aldean askoz handiagoa da, pentsaera politikoa gorabehera. Gizarte bezala, hondakinen gaia arazo bezala ikusi eta irtenbideak norberaren esku daudenaren sentsazio hori pixkanaka sakontzen ari dela uste dut.

Aldaketa ematen ari dela esango zenuke, beraz?

Ari da ematen. Gai honek sortzen dituen kostu politikoa eta mediatikoa ez ditut ukatuko. Baina epe erdi-luzerako ikuspuntuarekin hartzen bada, sistema eta azpiegitura zehatzen eztabaidatik haratago, hondakinena geuk sortu eta geuk konponbidea jarri beharreko arazoa dela, gero eta barneratuagoa dagoela uste dut. Gainera, iruditzen zait azkenengo hilabete hauetan zentzu horretan lasaitzen ere ari dela giroa. Baina arrastoa utzi du, aipatu dudan barneratze horretan; ez guk nahi adina, baina aztarna hor dago. Eta alderdi potitibo hori ere mahai gainean jarri behar dela uste dut. Denborak esango du, gauza hauetan gertatzen den bezala, baina baditugu Gipuzkoan azken urteetan eman den bilakaren datuak eta jauziak ikusgarriak dira. Ez dugu ahaztu behar Europan horrelako jauziak hainbat lekutan urte askoren ondoren etorri direla. Eta erreferentziak

herrialdeetatik ari gara, baina noski, haiek orain dela 20-25 urtetik ari dira politika horiek aplikatzen.

Zer sentitzen duzue Europan, edo Madrilen bertan, zuen hondakin kudeaketarako politikak Gipuzkoan baino 'prentsa hobea' duela ikusita?

Perspektiba hartzen laguntzen du, eguneroko urduritasun eta presio horietatik haratago markatzen ari zaren politikak baloratzeke, ika-mika politikoa haratago. Bildu Gipuzkoan lehenengo indarra da, baina ez dauka gehiengorik. Neurri batean, beste alderdi politikoei badute halako jarrera bat Bildu higitzeko, beren estrategia politikoa normalizatzen hartu dezakeguna. Gertatzen dena da, ika-mika horretatik kanpo dauden eragileak, hondakinen problematika osagai politiko horren eraginik gabe aztertzen ari direnak, hondakinen kudeaketan aurrerakoiagoak eta benetan eraginkorrek izango diren politika berriak egin nahi dituztenak, Gipuzkoan fijasen ari direla, eta begi onez ikusten dutela hemen egiten ari garena. Erreferentziatzen ere hartzen gaituzte, Europan eta PPren esku dagoen Gobernu espainiarrean ere bai, adibide on bezala hartzen gaituzte. Horrek ere asko laguntzen du momentu hauetan ikusteko, baita, polemika honek neurri batean beste osagai

DATUAK

Gipuzkoako Fotu Aldundiak hondakinen kudeaketaren gainean aurkeztu duen proposamenaren bi zertzelada.

2015. urteko apirila.

Data horretan itxiko dute Lapateko zaborteja. Zarauzko Urtetako urte honen bukaeran, eta 2015 bukaeran Beasaingo Sasietakoa.

4 azpiegitura berri.

Zabortejiak ixtearekin batera, azpiegitura berriak eraikiko dituzte: bi konpostagune berri –Lapatxekoari gehituko zaizkionak–, tratamendu mekaniko biologikorako planta bat, eta hondakin bizigabeentzako gordailu bat.

“Uste dut badela garaia Azpeitian ere urratsa egiteko”

“Birziklapenak ezin du izan borondatezko gauza bat”

batzuetatik gehiago duela, hondakinen inguruan politika egoki bat zein izango litzatekeen eztabaidatetik baino.

Errauskailurik gabeko eszenatoki berrirako proposamena aurkeztu zenuten otsailean. Martxan dauden hiru zabortejiak ixteko egutegia egin duzue eta Lapateko 2015eko apirilean itxiko dela esan duzue. Azpeitiar bezala, nola baloratzen duzu albistea?

Lapatx bizi izan dut herritar bezala, usainekin eta gainerako arazoekin, eta kudeaketa mailan. Hondakinen politikan, Lapatx porrota-

ren irudia da, eta berdin esan genezake Urtetaz eta Sasietaz [Zarauzko eta Beasaingo zabortejiak, hurrenez hurren]. Egin behar ez litzatekeenaren irudia dira, edo gaizki egiten dugunaren ondorio bat. Azken urteetan, gainera, arazoaren dimentsioa handitu egin da, San Markoseko zaborteja itxi ondoren askoz tona gehiago iritsi dira Azpeitira eta azpeitiarrontzako eragina handiagoa izan da. Argi duguna da presa eta urgentzia daukana zaborteji hauek ixtea dela. Zaborteji kutsakorrek dira, ez dute legedia betetzen. Ezin da jarraitu porrotaren irudi horrekin eta, gainera, ez daukagu zertan jarraitu. Zabortejiak inork ez ditugu nahi ondoan, erraustegiak ere gehienok ez. Beraz, gelditzen den irtenbide bakarra da birziklapen maila altuak lortzea da, eta gainontzeko materialari ahalik eta gehien egonkortzeko tratamendua eman eta gordetegi batzuetan uztea. Hori da proposatu duguna

Azpeitiko Udalean aho batez adostu zuten iaizko maiatzean sistema berria ezartzea. Ia urtebete pasatu da, oraindik ez dago halakorik, eta adostasun itxura handirik ere ez da alderdien artean. Nola ikusten duzu zuk?

Uste dut badela garaia Azpeitian ere urratsa egiteko. Aldundiko ordezkari bezala, guk udalen eta herri bakoitzaren erabakien inguruan errespetuz jokatu behar dugu. Herri bakoitzak bere prozedura, erritimoa eta erabakiak hartu behar ditu. Aldundi bezala, sistema eraginkorrek ezartzea eskatzen dugu. Udalei eta mankomunitateei oso gauza sinplea planteatzen diegu: birziklapenak ezin du borondatezko gauza bat izan. Alegia, ez birziklatzeak kutsadura eta arazoak sortzen baditu, ezin du borondatezko gauza bat izan, espaloi gainean aparkatzea ez den bezala; beste norbaiti arazoa sortzen diozu eta, beraz, betebeharrak zibiko bat izan behar du. Termino horietan planteatu behar



da, eta hori da Azpeitian lortu zen akordioaren oinarrian ikusten den izpiritua; eta horrela ezartzen zen, gainera, literalki.

Sistema berria edukiontzien sistematik abiatuta egitea aipatzen da udal akordioan.

Gipuzkoan bosgarren 'edukiontzia vs atez atekoa' borroka irudikatu da. Eta hori baino zabalagoa eta anitzagoa da hondakinen mundua. Atez atekoa egiteko modu bat baino gehiago daude eta derrigortasunak, alegia, materia bakoitza bereiztuta atera beharrak, bateratzen ditu. Inportanteena da modu egokia topatzea eta barneratzea, ezin dela orain arte bezala izan. EAJk bosgarren edukiontzia defendatzen duenean, esaterako, ez dugu ahaztu behar Azpeitian zerbait eduki badugu azken urteetan, sistema horixe izan dela; EAJ udal gobernuan zegoela jarri zen, eta badira jada bost urte. 2013ko datuak hartuta, Azpeitiko birziklapen tasa %35ekoa da; bosgarren edukiontzia erekin, bost urteren ondoren, %35. %70eko tasa ontzat ematen badugu eta horraino iritsi behar badugu, zerbait gehiago planteatu beharko dugu. Eta zerbait gehiago hori planteatzeaz hitz egiten dugunean, oso erraza da: errefusari, edukiontzia grisera botatzen dugun horri, muga jarri behar zaio, eta hori lortzeko modu ezberdinak daude. Nik ulertzen dut Azpeitian horren bila ari direla, betebeharrak hori ahalik eta modu egokienean eta ahalik eta modu erosoenean nola lortu.

Azpeitiko herritar bezala, zein eredu gustatuko litzazuke? Zein iruditzen zaizu Azpeitirako egokiena?

Nik beti defendatu izan dut atez atekoa dela sistema eraginkorrena, eta jakina da, hainbat bariante izan ditzakela kontuan izanda. Urteak dira etxean bosgarren edukiontzia erabiltzen dugula eta gainerako zatikiak ere bereizten ditugu, eta gustatuko litzaidake herritar gehienak ere hori egiten ikustea. Eta beste hainbat herritan egin duten bezala, %70-80ko emaitza hori lortu ahal izango duen sistema bat ezartzen ikustea 2014. urtean Azpeitiko Udala. Hori da niri gustatuko litzaidakena, azpeitiar bezala: benetan eraginkorra izango den sistema bat, nahi den aldaera erabilita, baina edukiontzia grisaz Azpeitiko kaleetatik desagerraraziko duena.

Jendeak mentalizatu beharra daukala iruditzen al zaizu?

Askotan aipatzen da inposaketa, eta horrelako hitzak. Inposaketa da baita Azpeitian Lapatzeko zaborteiarekin daukaguna baina, noski, ez badugu birziklatzen, arazoa beste leku batera aldatzea besterik ez dugu lortuko, Zubietako erraustegiarekin planteatzen zen moduan, eta hori ere ez dugu nahi. Gizarte bezala daukagu erantzukizun bat, geure buruari inposatu behar diogu esfortzu txiki hori, egiten ez dugun horrek beste bati sortzen dio-eta arazoa. Azpeitiaren kasuan ere gauza bera esango nuke, ez da gauza bera kalean bizi garenontzat eta Landeta inguruan bizi direnentzat. Zer arazo sortzen ari gatzazkie Landeta inguruan bizi diren horiei? Haiei ez al gara inposatzen ari? Hori onargarria al da? Ba guk uste dugu ezetz. Eskatzen dugun bakarra da ohituren aldaketa txiki batzuk.

Lapatzeko lurrak berreskuragarriak al dira? Zer prozesu jarraituko da?

lxteko eta zigilatze prozesu bat jarraituko da. Legeak agintzen du 25 urtetan kontrolatzen jarraitu behar direla espazio horiek, sortu daitezkeen gasak, lixibiatuak eta abarrak kontrolpean izateko. Lur eremu bat edukiko genuke, zelai bat izango litzatekeena, baso bat edo parke bat. Nekazaritzarako, adibidez, ezingo da erabili aipatutako epearen barruan.

Aldundiak proposamena egina du, baina EH Bilduk ez du gehiengorik Batzar Nagusietan. Nola dago kontua, oposizioarekin?

Ez dago erraza, hasieran aipatu ditugun interesen kontu horiek hor tartean nahasten direlako; udal eta foru hauteskundeetarako ere gero eta gutxiago falta da, eta horrek ez du errazten horrelako akordioak egitea. Baina planteatzen ditugun azpiegiturak Batzar Nagusietan onartutako plan-

gintzan oinarritzen dira, bai konpostaguneak, bai Zubietako tratamendu mekaniko biologikorako (TMB) planta. Gero, gordetegien aukera dago. Gaur egun indarrean den plangintzan ez da inongo gordetegirik agertzen, baina ezta errauskailuaren zepa eta errauszentzat izango zena ere. Hutsune bat dago hor plangintzan. Zabortegeiak itxi nahi baditugu denok jokatu behar dugu erantzukizunez. Hor bada adibide egoki bat, asko laguntzen duena, eta da Azpeitiko Udalak plenoan hartu zuen akordioa. Eskatzen zitzaizkien Gipuzkoako alderdi politikoei Batzar Nagusietan, errausategirik gabeko alternatiba horretan, zabortegeiak itxi ahal izateko bideak adosteko. Uste dut hori dela egin beharrekoa. Gu saiatuko gara adostasunak lortzen eta bitartean, era berean, aurrera egingo dugu plangintzan jasota dauden azpiegiturak eraikitzen, ditugun gehiengoak ere erabili egin behar ditugulako.*

Energia menpekotasuna

Hondakinek ia dena estali arren, ez dira Gipuzkoako ingurumen arazo bakarra. Lurraldeak, "eta herritarrek", badituzte arlo horretan bestelako kezak eta erronkak. Ingurumen diputatuak horietako bat nabarmendu du: energia mendekotasuna.

"Gipuzkoak arazo handia dauka menpekotasun energetikoarekin –dio Errazkinek–. %96an gara energetikoki dependienteak,

eta hori dugun menpekotasuna erabatekoa dela esatearen parekoa da" Kanpoko faktoreen menpe, "Aldundiak eremu horretan ere garatu nahi du bere politika, energia berriztagarrien aldeko apustuarekin, eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko ere bai", azaldu du. Hondakinekin alderaketa egin du, eraginkortasun energetikoaren gabeziak medio "diru asko alferrik botatzen" dugula esanez.*



Aski jakina da errezildarrek ahozkotasunean bizitasuna dutela. Eta, aski ezaguna da gauzak esateko duten modua bizkorra eta aberasgarria dela. Hots, hizkuntzarekin jolasteko modu dotorea dutela.

Horren erakusle da joan den urteko apiril-ean Uztarría Komunikazio Taldeak argitaratu zuen *Errezildarren ateraldiak* liburua. Laxaro Azkunek, Imanol Lazkanok eta Juan Jose Eizmendi *Loidisaletxe*-k jaso eta idatzi zituzten errezildarren ehundik gora istorio. Hain zuzen, ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi gorde eta kontatutako pasarteak.

Idazleetako batek, Lazkanok, honakoa esan zuen, 2012an, liburua egiten hasi zirenean: "40 urtez Euskal Herriko zazpi probintziak pasatu ditut bertsotan, herri txiki asko eta asko, baina ez dut aurkitu beste herri bat hizkera arruntean Errezilek adina bizitasuna duenik".

Hainbat dira liburuaren protagonistak, eta ateraldien egileetako batzuk dira Akilino Eizmendi *Zepai*, loidisaletxetarrak, azpillatarrak, Joxe Mari Lazkano, Galarrasaletxeko Bartolo eta loiditarrak. Liburuak arrakasta itzela izan zuen Errezilen, ateraldi horien sorburuan, Azpeitian nahiz inguruko herrietan.

Azpeitian ere izan dira eta badira hizketarako dohain berezia duten herritarrak. Ateraldi ugari egin dituzte, eta horietako zenbait jaso zituen Goizargi Oruesagasti filologoak (*Azpeitia*, 1978) Euskal ikasketen graduondo bukaerako ikerketa-lanean. Azpeitiarren ate-



Azpeitiarrek hainbat ateraldi egin dute, eta horietako batzuk dira irudikoak. || Iñaki Martinez

Hitzezko altxorra

Entzutetsua da errezildarrek ahozkotasunean duten bizitasuna, baina ez dira bakarrak; azpeitiarrek ere utzi dute hainbat ateraldi. 📌 Julene Frantzesena

MATXINBENTAN MAHAI
BATEAN JARRI ZITEZKEK BOST
HERRITAKO ALKATEAK,
BEREN HERRITIK
ATERA GABE.

(PELOTAN)
BANKUE JOTAKUEN
ZER IZETEA? - KIEBRA.

KAMIOIEN AZKAR DJOAZTE,
ETA: USTE DET BELAXE
AILEGAUKO GEALA,
BAINO NAHIO NUKE AILEGAUTE
BANEQ.

raldiak ez ezik, azkoitiarrenak ere jaso zituen Oruesagastik *Iraurgi bailarako kontu zaharrrak* lanean, eta 2004an argitaratu zuen *Azpeitiko* Udalak. XXII. Euskal Antzerki Topaketarako Udalak lan hura ekoitzi eta Alaitz Olaizolak egokitu zuen, Lakrikun taldeak zein beste aktore batzuk *Maritxu nora zoaz eder galant hori*, *Azpeitira Bartolo nahi badezu etorri* izenburupean taularatu zezaten.

Oruesagastik dioenez, beti gustatu izan zaio adinekoek kontatutako istorioak entzutea eta ondo gogoan du ateraldi haiek jasotzeko egindako lana: "Bilketa egiterakoan bi bidetatik jo behar izan nuen; liburuetatik jaso nuen hainbat kontu, eta grabaketa bidez besteak". Hitzunak hautatzerakoan "auzo bakoitzetik berriemaile egoki izan zitezkeenak aukeratzeko" saiatu zela dio: "Berriemaileekin

banaka nahiz taldean elkartzen nintzen, eta hitzordua beraien etxean edo beraientzat ohikoa zen lekuren batean egiten genuen; elkarrean, kafetegi batean...".

2001ean hasi zen dokumentazio lanarekin eta horretarako hamazortzi bat lagunekin elkartu zen. Besteak beste, Imanol Lazkanorekin, Justo Aizpitarterekin, Inazio Amilibiarekin, Gregorio Bideaurrerekin, Nikolas Segurolarerekin, Joxe Antonio Oruesagastirekin eta Joxe Oruesagastirekin. Haiek kontatutakoak ardatz, hainbat azpeitiarren ateraldiak idatzi zituen, eta "hiztunekin zuzeneko hartu-eman izatea polita eta oso aberasgarria" izan zela gogoratu du. "Galtzear dagoen tradizioa bere horretan gal ez dadin, eta herritarrek eskura izan dezaten, garrantzitsuak iruditzen zaizkit era horretako bilketa eta ikerlanak".

Dena den, "epe mugatuko" lana izan zen Oruesagastirena, eta "atera kontuak zenbat ateraldi dagoen jaso gabe", dio.

Ahozkoaren garrantzia

Ahozko tradizioa jasotzea "oso garrantzitsua" dela dio Oruesagastik, "ezinbestekoa da eta bailara baten historia eta bizimodua behar bezala ezagutzeko". Ildo beretik, aintzinako tradizioa ahultzen ari dela uste du: "Baserrietan geroz eta zahar gutxiago gelditzen da —aintzinako tradizioaren lekukorik garrantzitsuenak hiltzen ari baitira— eta geroz eta gazte gutxiago doa baserrietara. Aintzinako tradizioa ahoz eta belaunaldiz belaunaldi transmititu izan da, eta gure herriko historiaren ardatz diren hainbat istorio iritsi zaigun arren, beste asko bidean galdu zaizkigu. Nik kontu batzuk baino ez nituen bildu eta tartean aurretik ezagutzen nituen istorioak jaso nituen. Hala ere, harrituta gelditu nintzen ikusita zenbateko aberastasuna dagoen Azpeitian".

Ahozko ondareari lotuta hainbat proiektu dago abian Euskal Herrian, eta horietako bat da Ahotsak proiektua. Euskal Herriko hamaiaka herritako adineko bizilagunen bizipenak jasotzea dute helburu, gero herritarren artean zabaltzeko. 80tik gora azpeitiarren lekukotzak jaso dituzte dagoeneko, eta argi dago badela zer kontatua gure herrian. Badagoela zer kontatua eta zer jasoa, ondorengoek jakin dezaten zer nolako ahozko ondarea izan dugun eta daukagun. Altxorra ez galtzeko.



||| "Galtzear dagoen tradizioa bere horretan gal ez dadin, garrantzitsuak iruditzen zaizkit bilketa lanak"

GOIZARGI ORUESAGASTI
filologoa

▶||| ATERALDIAK |||||

Goizargi Oruesagastik *Iraurgi bailarako kontu zaharrak* ikerketa lanean jasotako ateraldi batzuk.

JOXE ARANBURU 'KEIXETA'.

Dirua nola atera.

Auzotar batek informatuta egongo zelakoan: – Obra bat egin nahi nuke, eta aurrezki kutxatik dirua ateratzeko zer egin behar da? Keixetak:

– Aurrena sartu!

Multa. Udaletxeko lehiatilara joan dira multa ordaintzera Bentatxo baserriko Emeterio eta Keixeta. Saminik handienarekin han uzten dute multako dirua, eta Emeteriok esaten dio lehiatilakoari: – Diru kopuru hau dena utzita ez al degu agiriren bat edo erreziboren bat behar? Keixetak:

– Ez, Emeterio. Ez dugu inongo agiririk behar, hau etzaigu inoiz ahaztuko.

Amenabarrena. Keixeta Arria Zaharraren erakuslea zen, eta Arria aizkolaria Amenabarren sozioa. Amenabarrek aizkora hartu zuen behin, eta enborra ebakitzen hastean honakoa esan zion Keixetak: – Bejondeizula, Joxe! Nik uste baino hobeazau, baino zuk uste baino txarragoa.

FERMIN 'KASKANTE'.

Tiroplatoa. Kaskantek bazuen txanpan boteila ipurdia baino kristal lodiagoko betaurrekodun lagun bat.

Lagun hark Kaskanteri:

– Arratsaldeko tiroplatoan izena ematen izan nauk.

Eta, Kaskantek:

– Hi tiroplatora! Elurretan apaiza ez huke ikusiko ta!

Jesuita. Egun batean mutil gazte batek Loiolara jesuita joan behar zuela aitortu zion Kaskanteri, eta horrela deskribatu zion azpeitiarrak etorkizuna:

– Berehalaxe erakutsiko ditek 'regla de tres': listoa baldin bahaiz estudiantia, tontoa baldin bahaiz lanera eta alferra baldin bahaiz etxera!

FERNANDO OLAIZOLA.

Punttuan. Kartetan ari zela, justu-justu galdutako jokaldi baten ostean esaten dio batek Olaizolari:

– Azken aurreko pasaran bosta jo bauan, gero seiak pasara egingo zian ta horrelakoak.

Olaizolak:

– Egin banuan eta ez banuan, gure amonak potroak izan balitu, aitona izango huan.

Errezildar batek aldamenetik:

– Huraxe izango zen pamili ikusgarri, bi aitona eta amonaik batez.

ANTZIKO GREGORIO.

Erre. Erretzaile purrukatua zenez, orduan ere erretzen, eta auzoko andre batek esaten dio Gregoriari:

– Orain ere erretzen Gregorio.

Gregoriok:

– Bai, daukadan bizio bakarra haxe da eta ezin utziko diogu.

Emakumenak:

– Baña, baña, ez al dakizu hori oso txarra dela?

Gregoriok:

– Horregatik bada, gauza txar denak erre egin behar dira.

Peria. Peritik etxea zihoala, 1960-1962 urte inguruan, Gregoriok lagunari:

– Gaur oso gustura niek etxera, oso notizi ona zeramakit eta.

Orduan besteak:

– Pozte nauk motel hain gustura ikusteaz.

Baina, jakin baliteke zein den notizi on hori?

Gregoriok:

– Bai gizona. Gizon jakintsu usteko batek esan zidak oraingo krisialdi hau baserrietara ere iritsiko dela. Eta, nik horixe nahi.

Besteak harriduraz:

– Baina, etzera ba krisiaren egarriz egongo?

Gregoriok honakoa erantzun zion:

– Horixe nagoela! Diruz lehen baino gutxiago ez diat izango eta lana kentzen badidate ba al dakik zer diferentzi!

INAXIO ARANBERRI 'DEABRU'.

"Vuelta de España". Azpeitiar batzuk eztabaida beroan ari ziren, Vuelta de Españaren irabazleak diru asko ala gutxi jasotzen zuen defendatzen. Horrela ari zirela Deabru agertu zen, eta hari galdetu zioten:

– Zuk zer deritzazu? Vuelta a España irabazteagatik bi mila pezta asko al da? – Joder! -hots egin zuen Deabruk- Asko izango ez da, ba? Guk oinez egin genuen eta azkenean kartzelara sartu gintuzten.

ALTZARTE BASERRIKOA.

Beasaina? Goizaldeko lauretan bidean galduta zebilen kamioizale nafar batek bere buruari:

– Non arraio nabil ni? Galdetu egin beharko dut. Nori, ordea, ordu eta toki hauetan?

Altzarte baserriko atea jo, eta esaten dio aitona bati:

– Aizu, gizon. Beasaina hemendik joaten al da?

Eta aitonak:

– Bai! Gu joaten garenean, hemendik joaten gara.

BI MUTILZAHARRENA.

Txuletak eta gizalegea. Bi azpeitiar mutilzahar harakinaren mandatuak egiten ibiltzen ziren. Behin harakinak txuleta bi eman zizkien. Taberna batera joan eta andreari esaten diote:

– Prestatuko al dizkiguzu txuleta hauek? Biak mahaian eseri, eta laster heldu ziren txuletak. Bat bestea baino handiago, eta bietako batek handia hartu zuen.

Besteak:

– Hik ez daukagizalegerik!

Txuleta handia hartu zuenak:

– Zer ba? Heuk zein hartuko huen ba?

Eta, besteak erantzun:

– Txikia.

Besteak:

– Hor daukak!*



Orgasmoak sentitzen ikasi

Adin ezberdinetako emakumeek ez dute orgasmoak bizitzen ikasi eta senti dezakete bizipen hori ezagutu gabe normaltasunetik urruntzen direla, beste emakumeak baino gutxiago direla. Bizitza sexual eta erotikoa asebetea izateko, ez da inondik inora beharrezkoa orgasmoak bizitzea, baina aukera hori izatea ez dago soberan.

Orgasmoak topatu edo bilatu

Neskato eta emakume askok, orgasmoa den kitzikapen edo eszitazio sentsazio intentsuarekin topo egin dute hura bilatu gabe, ustekabean; eta atsegin hori errepikatzeko asmoz, bizipen horretara eraman zituen baldintzak edo jokaerak errepikatzen jotzen dute.

Beste batzuk, aldiz, orgasmoaren inguruan entzun dutena bilatzearen, hainbat saiakera egiten dituzte, arrakasta gutxiarekin. Batzutan deserosotasunez, bestetan gorputzaldi txarrarekin geldituz, edota euren burua lotsagarri sentituz.

Ibilbidez gozatzen ikasi

Orgasmoa zenbat eta gehiago exijitu, zenbat eta gehiago bilatu, orduan eta zailagoa da gertatzea. Jokabide erotikotik, Done Jakue bidea baillitza: interesgarria ez da iristea, bidea egitea baizik. Hortan datza gakoa. Gure gorputzaz, sentimenduetaz eta fantasiatuz gozatzeko gaitasuna izatea da garrantzitsua, eta horretan gaudela, orgasmoak ustekabean harrapa gaitzake, bestela ez!

Sarketak eta saiakerak

Orgasmoak bizitzeko saiakerak egitea txalagarria da, baina ez dugu asmatzen. Emakume eta bikote askok espero dute bagina sarketaren bitartez gertatuko dela orgasmoa, baina hori ez da oso errealista, ez baita uste bezain ohikoa. Hainbatek fedea jartzen dute bibragailu batengan, hark lortzen ez duena inork ezin duela lortu pentsatuz. Hau ere ez da zuzena. Beste batzuk, orgasmoak bilatze-



||||||| nerea sancholli |||||

||| Orgasmoa zenbat eta gehiago exijitu, zenbat eta gehiago bilatu, orduan eta zailagoa da gertatzea

|||Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:
Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.com/sexu 688897920

ko, iragarkien aholkuak jarraituz, crema potentziatzaileak probatzen dituzte, logika berdinari eutsiz. Plazera gudan dago, ez kanpoko objektu batean.


Landu beharrekoak

Bakarka plazera sentitzen ikastea da lehen pausoa, gero, sexukideari irakatsi ahal izateko. Horretarako, gure gorputzarekin harreman ona sortu beharko dugu, atal guzti-guztietan. Bulba eta bere atalak ongi ezagutzea komenigarria da. Erlaxatzen ikasi beharko dugu, arnasketen bidez edo beste teknikekin. Aldakako hezur eta muskulatura askatuz joan beharko dugu, dantzaren bitartez, adibidez. Pizten gaituzten fantasia erotikoa ezagutu eta onartzen ikasi beharko dugu. Zoru pelbikoko muskuluak lantzea oso ongi etorriko zaigu. Eta orokorrean, askatu eta adierazteko baimena eman beharko diogu gure gorputzari, lotsagarri iruditzen zaiguna alde batera utziz.

Arlo hauek guztiak lantzearen ibilbidea ere ederra izan daiteke eta neska gazte zein emakume zaharrek, hain tentagarriak diren orgasmoak bizitzea lortzen dute. ✨



Gazteek badute zer gozatu

2014ko Gazte Astea hilaren 7tik 13ra bitartean izango da. Hamaika ekimen antolatu du Azpeitiko Gaztetxeak egun horietarako, eta txupinazoarekin hasiko dute festa astelehenean.  Julene Frantzesena

Aurkezpena, hitzaldiak, bertso trama, parodia, bazkaria, kaljira, kontzertuak eta dokumental emanaldia. Horiek eta gehiago izango dira Azpeitiko gaztetxeak apirilaren 7tik 13ra antolatu duen Gazte Astea. Gazteek izango dute zer gozatu aste osoan.

Astelehenean, kalejiraren eta txupinazoaren ostean (17:30), Salhaketa elkarteko kideek 'Zigorean oinarritutako politikari alternatiba bat garatzeko mugimendu baten eraikuntza' dokumentua aurkeztuko dute.

Asteartean, memoria historikoren inguruko solasaldia izango da, CNT sindikatuko eta Eusko Lurak fundazioko kideen eskutik.

Asteazkenean komunikabideek gizartean duten eragina aztertuko dute, El Diario Vasco egunkaria adibide hartuta. Ondoren

DATUAK

Zer. Gazte Astea.


Eguna. Apirilaren 7tik 13ra. **Tokia.** Gaztetxean eta plazan.

Antolatzailea. Azpeitiko Gaztetxea.

Ordua: Solasaldiak eta 18:30ean.

GAZTE ASTEA

7 egun. Astelehenetik igandera izango da Gazte Astea.

11 ekimen. Egitarau oparoa antolatu dute, beste behin.  18:30etik aurrera.

(21:00), Enriarraitzeko gazteen bertso trama izango da.

Ostegunean Donostiako Okupazio Bulegoko kideen solasaldia izango da.

Ostiralean saheski jana egingo dute Sanagustinpean, 20:00etatik aurrera, eta segidan, urtez urte indarra hartzen joan den parodia izango da bertan.

Egun osoko egitaraua

Ekimen sorta antolatu dute zaturako. Eguerdian bazkariarekin emango diote hasiera festari. Bazkalostean kalejira aldarrikatzailea egingo dute Alde Zaharrean eta gauean Boltaia eta Goragaleren kontzertuak izango dira.

Igandean, asteari bukaera emateko, 'Nire bizi osoa espetxean' dokumentala emango dute, 18:30etik aurrera.

BESTERIK

1 Asteburu musikalak

Apirilarekin hasiko dira aurtengo Asteburu Musikalak. Hilaren 6an emanaldia eskainiko du kitarra taldeak. Apirilaren 9an, berriz, Donostiako Kontserbatorioko Camara taldearen txanda izango da. Maiatzean emanaldi gehiago izango dira.

Eguna. Apirilak 6 eta 9 (igandea eta asteazkena).

Tokia. Sanagustin kurgunean. **Ordua.** 12:30 eta 19:00, hurrenez hurren.

2 Talde txikiak aurrena

1a 30 taldek hartuko dute parte Azpeitia Cup alebinen futbol txapelketako aurreneko fasean. Talde gehienak Arabakoak, Gipuzkoakoak, Bizkaikoak, Nafarroakoak eta Errioxakoak izango dira. Lau sailkatuko dira hurrengo fasera, eta han talde handienekin ariko dira.

Eguna. Apirilak 25, 26 eta 27. **Tokia.** Garmendipe futbol zelaia. **Antolatzailea.** Azpeitia Cup.

3 Bidaia, argazkitan

Ainara Garcia azpeitiar argazkilariren irudiak izango dira ikusgai, kurguneko hormetan. Bidaia izango du ardatz argazki erakusketak.

Eguna. Maiatzak 2 arte.

Tokia. Sanagustin kurgunean. 



2013ko Gazte Asteko txupinazoa, plazan.  Azpeitiko Gaztetxea

 Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda



**Ignacio
Zuloaga
Institutua**

Eibar



Ate irekien eguna

Apirilak 30

Ordua 18:00

ARTE BATXILERGOA

A eta D ereduetan

Elkartrukeak



Ingalaterra - Alemania

Portaleako Erakusketa

Apirilak 4 - 27

Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net

Eman zure negozioaren berri Azpeitiko Gidan!


azpeitiko



HERRIKO NEGOZIOEN GUNEA



HITZ GEZIDUNAK


	Behargin atzerritar	▼	Ipar EH-n, koska	▼	Europako estatua	▼	Metal alkalino	▼	Aurreko, aldez aurreko
	Irtenaldia		Ala		* Deitura		Dago		
	▶		▼		▼		▼		▼
	Odolbildu	▶							
Presoa	▼	Karezko geruza	▶	▼			Iridioa	▶	
Beharrak		* Izena			Sorbaldako irtengunea		Beherako		
▶		▼			Adiskide		▼		
Taxi gidaria	▶				▼			Bokala	▶
Bera								Moduak	
▶						Hesola	▶	▼	
						Garoa, iratzea			
Sugetzara	▶			Haragi-mintza	▶	▼		Gaixo	▶
Enborraren mami				Holmioa				Ogi, hitz elkarketan	
▶			Hurritzaren fruitu	▶	▼		(Zah.) Zakurrak	▶	▼
			Kontso-nantea				Uranioa		
Aeronautikari dagokio	▶		▼				▼		



Egilea:
Luma

* Abokatu azpeitiarra

GOITIBEHERA



1. Elizarik ez duen auzo azpeitiar bakarra. 2. Multzoa. 3. Tarte. 4. Bihia, garaua. 5. Edo. 6. Suzko armen jaurtigaia. 7. Itsasbazterreko amildegia. 8. Zuhaitza. 9. Lainoa.

ANTONIO RAFANIELLO
HORTZ KLINIKA

Titaniozko inplanteak: 295 € tik hasita



- Aseguruekin lan egiten dugu
- Ordainketarako erraztasunak
- Finantziazio pertsonalizatua

www.antoniorafaniello.com

Enparan kalea, 8-1. Azpeitia 943 816736

|||UZTARRIA SUKALDEAN. HIL HONETAN...|||||||

FOIE HOSTOPILA KALABAZINAREKIN, PASTORKUAN

OSAGIAK

6 kalabazin xerra edo xafla

150 gr. foie grexka

4 intxaur

Mugurdi marmelada likidoa

Sagar-purea egiteko:

- Sagar berde bat
- Gurin koilarakada bat
- Limoi-zuku koilarakada bat
- Ur kikarakada bat
- Azukre kikarakada erdi bat



NOLA EGIN

Kalabazinari azala garbitu ondoren, sei xafla fin ebaki eta horiek egosten jarri, 5-7 minutuz. Sagar-purea egiteko, berriz, sagarra zuritu eta xafla mehetan zatituko dugu. Sagarra limoi-zukutan jarriko dugu, oxidatu ez dadin. Pu baxuan jarrita, limoiztatutako sagarrari azukrea eta ura gehituko dizkiogu. Putan 15 bat minututan dena nahasi ondoren, gurina gehituko diogu eta sua bizitu, eta pureari eragiten jarraitu, gurina urtu arte. Ondoren, purea fintzeko, turmixarekin xehatu.

Kalabazina egosita eta purea prestatuta, foie sukaldatzeari ekingo diogu. 4-5 xerra lodi samar ebaki eta plantxan pasatu arin bat emango diegu, gatz larri pixka batekin eta oliorik gabe.

Aurkezpenerako, plater atala da egokiena. Plater hondoan purea eta mugurdi marmelada zabaldu ostean, foie eta kalabazin xaflak tartekatuz 4-5 pisyko tontortxoak egingo dugu. Gaineratik beste pure pixkat bota, eta intxaurrez apaindu. Zerbitzatu aurretik berotu bat eman behar zaio.



|||LEHIAKETAN ERANTZUTEN EPEA. Apirilak 22 (asteartea) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia edo uztarrisukaldean@gmail.com ||| IRABAZLEARI SARIA. Pastorkua jatetxean bi lagunentzat afaria edo bazkaria |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da
|||BIDALI ZURE GUSTUKO ERREZETA, PLATERAREKIN AGERTZEN ZAREN ARGAZKI ETA GUZTI. EZ AHAZTU ZURE IZEN-ABIZENAK ETA TELEFONO ZENBAKIA JARTZEA!

|||SOLUZIOAK|||||||

HITZ GEZIDUNAK

O	K	I	T	U	V	N	O	R	E	V	J
K	A	R	O	J	R	U	H	J	R	U	Z
I	R	E	J	A	I	G	J	A	O	B	J
T	E	K	A	T	J	N	U	G	I	B	J
E	J	A	R	A	L	I	X	A	T	J	J
R	O	K	O	K	J	K	A	N	A	L	J
R	I	J	A	K	S	O	R	T	G	J	J
U	T	A	B	L	O	D	O	J	J	J	J
A	I	A	L	A	R	E	A	T	J	J	J
J	L	J	A	J	K	J	E	J	J	J	J



GOITIBEHERA

1. Landeta.
2. Taldea.
3. Aldea.
4. Alea.
5. Ala.
6. Bala.
7. Labar.
8. Arbola.
9. Lanbroa

|||MARTXOKO UZTARRIA SUKALDEAN LEHIAKETA|||||



Ainara Larrañaga
Uztarriako bazkidea da lehiaketaren 159. irabazlea. Barazkiz betetako hostopilak txanpinoi saltsarekin prestatu ditu. **Mikel Uria** jatetxean bi lagunentzako otordua irabazi du. Argazkian irabazlea, prestatu duen platerarekin.

|||UZTARRIA.COM|||

Mina

Esan nezake oraintxe pare bat urte hasi zela neretzat zure etena, eta orain erabateko desarmatzea etorri zaizula; desarmatzea eta desegitea, itxuraz behintzat. —Hau fedabideetako hizkuntza da; ez da gurea)

Esan nezake bi gune pneumonikok —p- eta guzti, zatarkiago eman dezan) astindu zaituztela, eta shock septikoak eraitsi, baina horiek ere ez dira gure ahorako egiten diren hitzak.

Esan nezake ezinak menderatu ondorengo herio hartan munduaren kontra atzaparka batean ikusi zaitudala tapaki, kable, galtzeta eta harrapatutako guztiak gainetik kendu nahian eta ezinean (...).

Aitor nezake elkarri emandako azkenengo musua oso tristea izan dela, bion ezpainen artean plastikoa baitzegoen; oxigenoa deritzana edo arnasaren lagungarri plastikozkoa. "Ezin det ezer eñ": horiexek, berriz, zure azke-

|||Esan nezake elkarri emandako azken musua oso tristea izan zela”

nengo hitzak, guk ulertzeko moduko azkenengo hitzak.

Esan nezake —askok esan dutena— betiko loan etzan zarela, edo bestela —beste askok uste dutena— zure jaungoiko haundi horren aurrera agertu izango zarela, zeure txikian (...).

Esan nezake... ez: hau ez dago esaterik; hau idatzi bakarrik egin liteke: Maria Luisa Amutxastegi (Hondarribia 1927 / Azpeitia 2014) (...).

Esan dezaket zure agonian, bizi-heriotzen borroka horretan, zure izter-artera begira gelditzen nintzela sarri, pentsatuz bezala hortik atera zela amazulo hau, euskaltzulo hau (...).

Ez dago bizirik minik gabe, gogorik edo guraririk gabe. Baina min horrek, gogo horrek, oso aise har ditzake galeraren, ezinaren, gaitzaren eta oinazearen koloreak gure baitan (...).

Baina, mundura itzuliz, munduaren gezur-itxuretara itzuliz, esan beharra daukat zure erabateko amagabetzeak gure erabateko amagabetzea ekarri duela.

(...) Gauze bat bakarrik, ta da oiñ premiye sentitzetela... nere biyotzak, begiyek eta belarriyek premiye sentitzebela periodikun euskera batun jarri gendun esaldiye neure era jartzeko hamentxe:

Zure barrun eon giñen;
gure barrun zaude oiñ.
Esanda gelditzea. Aio ama!

|||||iñaki segurola|||||

|||EFEMERIDEAK|||

1979

Frankismo osteko lehen udala. Luxiano Lazkano alkate zela, frankismoaren ondorengo lehenengo udal demokratikoa osatu zuten.

📖 **Iturria:** *Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar* liburua.

|||Egilea: Imanol Elias Odriozola.

|||Argitaratzailea: Uztarrria Kultur Koordinakundea.★

|||INKESTA|||

Beharapenetan erosketarik egin al duzu?

Bai, herrian. %87,39.

Bai, kanpoan. %3,76.

Ez dut erosketarik egin. %3,76.

|||Oraingo galdera.

Uztarriaren mugikorrerako bertsioa, gustatu?

uztarrria.com

Azpeitiko ataye

- Eguneko albisteak - Herritarren iritziak - Komunitatea - Bideoak
- Inkestak - Agenda - Bitxikeriak - Uztarrria aldizkari guztiak
- Uztarriaren produktu guztiak - Efemerideak
- Azpeitia atala: zerbitzu publikoen ordutegiak, telefono zenbakiak, festak, hauteskude-emaitza guztiak, herriko taldeak...
- Gida komertziala: herriko denda guztien telefono eta helbideak

sartu eta parte hartu

Egunero 3.000 bisita inguru



Espinakak

Bada uste faltsu bat espinaken edo ziazerben inguruan, Popeyeren!

Garai bateko ikertzaile batzuen akatsa izan zen, espinaken burdinaren kantitatea kalkulaterakoan egin zutena. Koma batekin nahastu eta konposizio tauletan espinakak benetan duten burdin kopurua hamar aldiz puztu zuten ikertzaileok, aipatutako akatsaren ondorioz.

Gure gorputzak espinakak duten burdina ez du ondo aprobetxatzen.

Beraz, urte askotan bestela pentsatu arren, mito bat da barazki honen burdin ekarpen handiari lotutako ustea.

Espinaka aberatsa da karotenoideetan, flavonoidetan eta E bitaminan. Potasioa ere badu eta horrek tentsioa erregulatzen laguntzen du.

Duen azido folikoak garrantzia handia du, haurdunaldia baino lehen eta haurdunaldiaren hasierako hiru hilabeteetan, arantza bifidoa –*espina bifida* deritzona, alegia– eta fetuaren malformazioak saihesteko.

Gordinen entsaladan edo egosita jan ditzakegu espinakak. Egosiz gero, duten azido folikoa desegin egiten da, baina modu horretan janda dituzten karotenoideak askoz ere hobeto aprobetxatzen ditugu.*



|||||aitziber aizpuru|||||

IBAN SUDUPE errepideko langilea



1. Lanik gogorrena?

Errepide garbiketa.

2. Ohiko egin beharra?

Belarra moztu udan, eta zuhaitzak kimatu neguan.

3. Lanaren alde onena?

Tokiaren arabera, paisaia.

4. Txarrena?

Udan beroa; neguan hotza.

5. Noiz lan gehien?

Udaberritik saninazioetara.

6. Non?

Gipuzkoan.

7. Arriskutsua al da?

Bai. Segurtasun neurri guztiak hartuta ere...

8. Arduraz ibili behar.

Akatsa istripu izan daiteke.

9. Anekdotarik?

Enpresa bateraino lagundu genion kamioi bati.

10. Bitxikeriarik?

Walkia ez zebilenez, azken autoko gidariari makila eman genion, bestaldeko langileari abisatzeko.*

Julene Frantzesena

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Lamaaldiak:
943 15 16 40

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Koh Tao

OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

lentzeria
mertzeria

jose artetxe, 16

nabar

Amenabar
www.amenabardecoracion.com

Eliz-kale 32 Azpeltia
Tel.: 943150697/685110703

"Il Partigiano" azpeitiko lehen pizza artisan egilea da. Gure italiar pizza tradizionalak produktu fresko eta naturalekin eginak daude. Egunean etxean egingako masarekin, momentuan eskuz zabaldua.

ETXERA ERAMANGO DIZUGU

Telefonoa
943 08 09 13

ildefonso gurrutxaga, 12 behea

IL PARTIGIANO
Etxeko Pizak



Goiko doinuak

Asko aldatu da kanpaien egitekoa herrian. Tradizioak, ordea, hor dirau, parrokiako tontorrean.

  **Eneritz Albizu Lizaso**

G

uztientzat egiten dute lan, inor baztertu gabe. Haien berri izango du lanera joateko goiz jaikitzen den herritarrak, baita egunsentian festatik bueltan oheratzen denak ere. Soreasuko Sebastian Donearen parrokiako kanpaiak ez dute atseden hartzen, oraindik ere mezulariak dira.

Duela urte batzuk, herri eta auzo askotan kanpaiak ziren komunikabidea eta larrialdi deia. Hedabideen presentzia ahula zenean, instrumentu horiek rol garrantzitsua zuten herrietan: eguraldi txarraren, istripuen edo su-

teen adierazle ziren, besteak beste. Kepa Susperregi Azpeitiko erretore eta artzapezaren hitzetan, gertakizunei buruz ohartarazteko ohitura bazen lehen, baina "zeharo galdua" dago, Azpeitian behintzat. Gaur, orduaz informatzeko eta elizkizunetarako erabiltzen dira kanpaiak herrian. Susperregiren aburuz, ziur aski, egiteko horiek izango dira etorkizunean mantenduko direnak: "Elizkizunetako kanpaiak ez dakigu mantenduko diren; orduak adierazteko kanpaikadek bai, jarraituko dute".

Gaur egun, hamar kanpai daude kanpandorrean, eta bakoitzak bere soinua, indarra eta eginkizuna ditu. Susperregiren hitzetan, kanpaien soinua oso desberdinak dira, nabarmenak. Elizkizuna hasi aurretik, haren izaeraren arabera, kanpai batzuk edo besteak jotzen dira; adibidez, kanpaien doinua ez da bera San Inazio egunean edo hileta batean. Artzapezak, ordea, gogoratzen du garai batean kanpandorrearen mezua anitzagoa zela: "Duela urte batzuk esanahi asko zituzten kanpaikadek. Hileta bat zegoenean, adibi-

dez, hildako pertsonaren gizarte-mailaren arabera, kanpaien doinua desberdina zen. Horrela, herri osoak jakin ohi zuen, gutxi gorabehera, nor hil zen”.

Hileta elizkizunez gain, tradizioaren erantzule ziren kanpaiak. “Kanpaiak ez dira elizkizunekin soilik lotu behar. Duela urte batzuk arte eguerdiko hamabietan lanuztea egiten zen nekazaritza-inguruetan, baita zenbait ekintza publikoetan ere. Geldiune hori egiten zen *Angelus* zeritzon doinua entzutean”, dio Susperregik. Hala da, eguerdiko hamabietan lanean ari ziren baserritarrek, kanpaiak entzutean, txapela kendu eta jarduna alde batera uzten zuten. Kaleko jendearentzat ere erreferentea zen parrokiako deia, erlojuak ez baitziren gaur bezain ugariak: “Nik uste dut ordua jakiteko baliabide beharrezkoa zela kanpaia”, baieztatzen du Susperregik.

Mendeetan, zintzo lanean

Kobrez eginiko hamar kanpaik osatzen dute parrokiako kanpandorrea. Oso zaila da jakitea kanpai horiek noiztik dauden Azpeitiko parrokiari, baina badakigu 1904az geroztik dutela gaur egungo kokapena. Kanpandorreak ez du beti gaur duen itxura izan, eta urte horretan moldatu ziren puntako piramidea zein kanpaien kokapena. Pako Epeldek ongi ezagutzen ditu parrokiako kanpaiak; haren aita, Felix Epelde, izan baitzen sakristaia bertan. Horrela azaltzen du hark: “Kanpai bakoiña bakarra da, desberdina; horregatik, izen propioa du instrumentu bakoitzak”.

Epeldek hiru kanpai nabarmentzen ditu: *Santiago*, *Madalena* eta *Izarraitz*. Bereziak dira horiek, izena begiratzen dioten txokoa-aren arabera baitute. Kanpandorreko kanpaiarik astunenari, berriz, *Dun Dun* deitzen diote: 2.130 kiloko pisua du, errinozero



Epelde eta Susperregi, kanpandorrean.

Kanpai fabrika

III Soreasuko Sebastian Donearen parrokiari bederatzita metro karratuko hilerria eta 450 kiloko kanpaiak egiteko brontzezko moldea aurkitu zituzten. Soledadeko kapera eraberritzeko lanak egin zituztenez. Badirudi, beraz, bazela kanpaiak parrokiari egiteko ohitura.

Moldeak eta hilerriak bere horretan dira eta aurkikuntza horiek bisitatzeko aukera dute herritarrek.

baten adinakoa. Horren ondoren daude *Ostrobero*, 1.060 kiloko pisuarekin, eta *Agonye*, 1.000 kilorekin. Orduak adierazteko erabiltzen diren kanpaiak, aldiz, nahiko arinak dira, besteekin alderatuz gero. Hiru kanpai txiki dira, eta bi mailurekin kolpatuz sortzen dira ordutegiari dagozkien doinuak.

Atzoko kanpaiak, gaurko modura

Pako Epelderen etxekoek gazte-gaztetatik ezagutzen dituzte kanpaiak. “Gure aita arduratzen zen kanpaiak jotzeaz. Hasieran, sokarekin jotzen ziren, baina elektrizitatearekin funtzionatzen hasi zirenean, etxetik ere jotzen genituen”, argitu du. Beraz, gaur egun automatikoa da lana, baina duela gutxi arte, langile baten jarduna izan da kanpaiak abiaraztearena. Epelderen arabera, “indarra eta intentsitatea” ziren gakoak kanpaiak jotzerakoan.

Itxura denez, XXI. mende bitartean, lan duin bat izan da kanpaiak jotzearena. Carmelo Urdangarinek eta Jose Maria Izagak haien *Oficios tradicionales VI* liburukian horrela jaso dute. Felix Epelderekin batera Jose Ignacio Abalia azpeitiarrak egin zuen beharra kanpai-jotzaile gisa. Lehenago, berriz, XVII. eta XVIII. mendeetan, Pedro Foncueva, Sebastian Quintana eta Antonio Palacios izan ziren parrokiako kanpaien zaindaria.

Tradizio handiko egitekoa izan da hori Azpeitian, baina modu eraginkorragoan lan egiteko bidea aurkitu dute parrokiari. Motorraren funtzionatzen dute, gaur, parrokiako kanpai guztiak. Gainera, erlojuarekin sinkronizata daudenez, inork ez du arduratu behar motorrak jartzeaz ere.

Baditu urte batzuk Soreasuko Sebastian Donearen parrokiak, baita hango kanpaiak ere. Han jarraitzen dute dorrearen puntatik zelatari; herriari begira, herriari dei eginez.✱

KIRURI
K
JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 59 08
Faxa.: 943 15 03 62

Iuba
aholkularitza

Aholkularitza
Eskola
Laborala
Santabie
Gestio Janak
Finkeko administrazioa
Gestio Inmobiliaria

Tlf: 943 157 025 Faxa: 943 157 273
Euzkadi, 43 • Iuba.aia@opkalm.net

KIMU BATEKO EKOLOGIKOEN TXOKOA

HURBILDU ETA EZAGUTU !!

natural 100%
EKOLOGIKOEN TXOKOA
100% natural

Kimu bat

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	080688
Erla Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemaileak)	687 60 50 06
DV (berriemaileak)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11

FARMAZIAK (APIRILA)

EGUNEZ

1-9-15-16	2-10-23-28	3-11-17-18-19-20-21-25-29	4-7-12-13-24	5-6-8-14-22-26-27-30
Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).
943 811274	943 080258	943 811350	943 811949	943 815974

GAUEZ

1-15-16	2-28	3-17-18-19-20-29	4	5-6-14-30	7-12-13-21-25	8-9-26-27	10	11-22-23-24
Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).
943 811274	943 080258	943 811350	943 811949	943 815974	943 852989	943 851235	943 851966	943 850660

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Apirilaren 30ean izango dute hitzordua, 17:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Aralar 647 42 59 95

Hamaikabat 15 72 00

SINDIKATUAK

ELA 81 34 46

LAB 15 13 56

EHNE 81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin 10 52 20

Kultur Mahaia 674 16 56 84

Euskara Patronatoa 81 45 18

Udal Euskaltegia 81 19 47

AEK 15 10 89

EHE 15 10 89

Udal Liburutegia 15 71 95

Loiolako Liburutegia 8165 08

Kontseilua 943 59 12 00

Bai Euskarari 902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi 81 02 10

Iraurgi (Betharram) 81 16 68

Iraurgi (Milagrosa) 8163 80

Iraurgi (Jesuitinak) 81 22 49

Ikasberri 15 12 46

Karmelo Etxegarai 81 26 97

Urola BHI 15 02 28

Uztaro 81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea 58 10 07

Eregi 943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 09:30-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 **ZAPO TXOKO** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



▲ UROLA GUSTAGARRI.

Urola Erdiko turismoa indartzeko, esne bildotsa gai hartuta, bisita gidatuak, topaketak, azokak eta ekimen gastronomikoak antolatu dituzte Iraurgi Berritzenek eta Urkomek apirilera.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarrria.com/azpeitia/
autobusak

RUTH COLEY

Auckland (Zelanda Berria)

“Ederra da Landaguneez inguratuta bizitzea”

Urola Ikastolan lanean ari da. Ikasturtea bukatutakoan itzuliko da etxera. “Uda behar dut, uda kiwia!”, dio. 📧 Mailo Oiarzabal

Noiz eta nolatan iritsi zinen Azpeitira?

lazko irailean iritsi nintzen. Lau seme-alaba ditut eta bi Londresen bizi dira. Denbora luzea neraman haiek ikusi gabe eta beraiekin denbora gehiago pasatzea erabaki nuen. Joan den ikasturtean Zaragozan egon nintzen. Beste urtebetez jarraitzea erabaki nuen eta nire lehen aukera Euskal Herria zen, batik bat Londresera joan-etorriak egiteko egokia-go delako niretzat, eta Zaragozan ditudan lagunengandik ere nahikoa gertu jarraitzeko.

Eta, zer moduz?

Oso esperientzia ona izaten ari da. Auckland Zelanda Berriko hiririk handiena da, 1,4 milioi biztanle ditu. Han erdigunean bizi nintzen. Niretzat ederra da, hemen, landaguneez inguratuta bizitzea. Jendea, berriz, oro har atsegina da, laguntzeko prest daude. Hala ere, batzutan bakarrik sentitzen naiz. Aurreneko hiru hilabeteetan senarra nirekin egon zen; orain hona dator berriro eta elkarrekin egongo gara, maiatz bukaera arte. Oporrak hartu, seme-alabekin egon, eta Zelanda Berriara itzuliko gara.

Datorren ikasturtean itzuliko al zara?

Ez. Sei negu jarraian daramatzat gainean eta nire gorputzak ez! esaten dit. Uda behar dut, uda kiwia!

Zer zenekien Euskal Herriaz hona heldu aurretik?

Biolentzia zegoenean, horixe zen guztia albisteetan; gauza bera gertatzen da herrialde guztiekin. Beraz, ETAz zertxo bat nekien, Francoz... Besterik ez.

Deigarria egin zaizun zerbait?

Tontor berdeak, ardiak, ura... Zelanda Berriaren antz handia daukala. Zuen gastronomiarekiko duzuen harrotasuna ere maitagarria iruditzen zait. Bitan izan naiz sagardotegian eta zoragarria iruditu zait; senarrarekin itzultzekoa naiz. Hizkuntza ere interesgarria da. Ordutegiak, berriz... bazkalondoan dena itxita egote horrekin ez naiz ondo konpontzen Irudi batekin gelditzekotan, baserri eta etxeak nonahi eta elkarrengandik oso gertu nola dauden hemen, perretxikoak bezala. A, eta zezenak! Zezenketarik ikusi al dudan galde-tzen didatenean, ‘ez, baina zezenak kalean korrika ikusi ditut’, erantzungo diet.*

1



1. Barry senarrarekin, Deban. 2. Ikasleekin, Urola Ikastolan. 3. Ruth Coley, lantokian.

19.400 kilometrotik gora daude Auckland (Zelanda Berria) eta Azpeitia artean.

2



3



Estimatzekoa

U

rrerko liburuak' letu dut azalean, liburutegiak 50 urte beteko dituela apirilean. Barruko orrialdeetan letuz jakin dut 1964ko apirilaren 5ean ireki zutela. Erretratuan, garai hartako erretorea –behabada–, eta Felix sakristaua ezagutu uste izan ditut. Beste inor ez. Gustura jakingo nuke zein zen herriko giroa orain dela 50 urte...

Joxe Mariri letu diot urte haietan kalekumea beste inor ez zela joatan bibliotekara. Eta gu haietakoa izan! Ez genuen, hala ere, nahi orduko hara sartzerik izan. Zazpi urte beteak behar ziren bibliotekara sartzeko. Badaikit zain egon behar izan nuela, urtea pasatu zain egon behar, edadea izan eta barrura sartzeko. Ez dakit zein zen orduko liburuzaina, ez dakit Rafael Amexua zen han, baina akordatzan naiz zazpi urte bete nituen egunean bertan egin nuela barrura, baten bat ni baino zaharragoa ondoan nuela.

–Zenbat urte dituk? –orduko liburuzainak mahaiaren beste aldetik, goitik, niri galdera.

–Zazpi. Gaur bete ditut.

Eta horrelaxe sartu ginen lehenengo aldiz.

Umeen erreinua

Hura dena liburuz betea zegoen, baina ez zen pertsona larririk ageri. Hura umeen erreinua zen. Eta, hasteko, jaietan estanko txikian hartzen ez genituen bezalako irakurgaiak zeuden. Eta, hasteko, Tintinenak nahi zituen jende askok... Eta nire buruan barrundan ez dut ikusten jende asko ere, baina bai mutil koadrila bat hango zenbait mahaitan Tintinak eta gainerako liburukote ilustratuak *ikusten*. Ze, askotan guk ez genuen askorik letzen, liburuak *ikus*i egiten genituen guk.

Eta isiltasuna. Lekuari errespetua, behabada, Iturri-txikiko biblioteka ez zen-eta ireki zaharra. Gauza berria. Misterioa. Beste alde batetik, erakutsita geunden, ondo erakutsita ere, isilik egoten! Elizan, isilik. Eskolan, isilik. Bibliotekan, isilik. Isiltasunaren legea zen, eta legea ez betetzeak zigorra zekarren han eta



■■■■■■■■■■miel a. elustondo■■■■■■■■■■

■■■ Irribarre egin dut neure kolkorako Joxe Marik kaleratze kolektiboak ere egin zituela letu dudanean

hemen. Beharko isilik egon!... Isiltasun hori gogoan dudala, irribarre egin dut neure kolkorako Joxe Marik kaleratze kolektiboak ere egin zituela letu dudanean. Ez ziren mutiko errazak, Iban txiki hura eta!

Nirekiko, Iturri-txikiko, edo "bonberoen ondoko" biblioteka hura benetan zen biblioteka, liburuak letzeko lekua, edo maileguan hartu eta etxera eramateko toki. Liburuak Enparan dorretxera aldatu zenean kanbiatu zen bibliotekaren funtzioa ere. Garaia ere bestela etorri zen, dudarik gabe, tokiak berak askoz aukera handiagoak ematen zituen, eta ematen ditu gaur egun, eta biblioteka izandakoa ikastegi ere bihurtu zen neurri handi batean: liburu artean lan egiteko eta ikasteko toki aproposa. Eskolako lanak egiteko eta azterketak prestatzeko leku ederra. Eta, gainera, hantxe irakasle laguntzailea ere: Joxe Mari, honetan eta hartan laguntzeko beti prest ikusi nuen laguna

Oraingoak ikusi ditudan bezala. Laguntzaile.

Estimatzekoa da.✘



ORDENAGAILUEN SALMENTA MOTA GUZTIETAKO ORDENAGAILUEN KONPONKETAK



GEURE HIZKUNTZAN LAN EGITEKO,
NEURRIRA EGINDAKO
EUSKARAZKO PROGRAMAK DITUGU
(Autonomo, enpresa txiki, denda,
taberna, jatetxe, akademientzat...)

Iberotarren plaza 8, behea 20730 Azpeitia Tel.943 81 51 51

www.softekin.com

URBISTONDO MARGOAK



Eta zuk, margotu ala dekoratu?
Edozein kolore, edozein azalera

MONTÖ
mix system



Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun



Createch Medical-en

etorkizuna gerturatzeko dizugu,
implanteetan egiturak egiten espezializatutako
gure enpresa berritzailearekin



ZURE INNOVA DENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 Eibar

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVA DENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 Azpeitia

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com